

25
hh
hik hasi **URTE**

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak
Joxi Imazi elkarrizketa
Psikomotrizitate-gelak COVID-19aren
garaian
Harpideak, Hik Hasiren 25 urteotako zutabe
Change hezkuntza-proposamena
Anjeles Iztueta

253



NATURA, ESKOLA BIZIA



Begiak ZERUMUGAN

MIREN AGUR MEABE
ANE PIKAZA



HORMA-IRUDIA
BARRUAN

Haurtzaroko paisaiak sentimendu bihurtzen dira
poema-liburu honetan.

elkar www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

'NATURA, ESKOLA BIZIA'

Haurren garapena, osasuna, heziketa eta sozializazioa sustatzen ditu izadiarekin kontaktuan egoteak. **Hik Hasik** udazkenero Haur Hezkuntzarako antolatzen dituen jardunaldietan aurrez aurre ikusi eta entzun ahal izan ditugu izadiak hezkuntzari egiten dizkion ekarpenak, besteak beste, HUHEZIKo Iñaki Larrarearekin eta Heike Freire pedagogia berdeetan aditua den ikerlariarekin.

ELKARRIZKETA / 20

JOXI IMAZ

'Hezkuntzaren Soziologia' liburua plazaratu berri du Soziologian lizentziatua eta doktore den unibertsitateko irakasle honek. Gizartearen eta hezkuntzaren arteko harremana gai nagusizat hartuta, hamaika galdera mahaigaineratu ditu, horietako bat hauxe: zein gizarte mota nahi dugu? Erantzunaren arabera, hezkuntzak harantz egin beharko duela dio

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpirotz eta Ainara Gorostitxu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi,

Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Elixabet Menendez

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-11-12).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Harpideei eskerrik asko eta zorionak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak

20 ELKARRIZKETA

JOXI IMAZ

"Mundua alda dezake hezkuntzak, baina ez berak bakarrik, beste erreforma sozial, politiko eta ekonomikoak behar dira"

28 ESPERIENTZIAK

Harpideak, Hik Hasiren 25 urteotako zutabe

30 EKARPENAK 1

COVID-19a: psikomotrizitate-gelak irekiko ditugu eskoletan?

32 EKARPENAK 2

Ipui motorrak, aniztasuna eta inklusioa lantzeko

36 GALDEIDAZU

JON ARANA

'Distantziak eta neurriak zorroztu diren garai hauetan, zer garrantzia dauka jolas libreak?'


39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Change programa

42 ATZEKO ATETIK

Anjeles Iztueta



Harpideei eskerrik asko eta zorionak!

editoriala

AMETSAK ERREALITATE BIHURTZEKO, AMETSAK EDUKI BEHAR DIRA. ESKUAK ERE BEHAR DIRA, TALDEA. BABESA ETA ZAINZA ERE BAI. **HIK HASI** EGITEKO, HARPIDEAK BEHAR DIRA. HARPIDEEI ESKER BETE DITUGU 25 URTE.



Hartu hondarra esku artean eta badao hatz artetik; har ezazu ura esku artean, baietz alde egin ertzetik.

Baina guk beste esaera bat ikasi dugu HIK Hasin: **hartu amets bat eskuetan eta joan zaitez bere atzetik...**

Ametsak errealitate bihurtzeko, lehenik eta behin, ametsak eduki behar dira. Ondoren, eskuak —taldea, laguntza— behar izaten dira; batzuetan baliabideak, izan materialak edo bestelakoak, eta babesa behar izaten da, sustengua, ekarpena, dirua, geriza, zaintza... **HIK Hasi** egitasmo pedagogikoaren zutabe, oinarri, euskarri, sustengu harpideak direla diogunean, harpideen lanen ekarpenez, kolaborazioez, parte-hartzeaz eta proiektuari ematen dioten laguntza ekonomikoaz ari gara. Ez litzateke **HIK Hasirik** izango harpideok hor ez bazeundete!

HIK Hasiren inguruan hartu eta emaneko harremana sortua dago, denak irabazten ateratzen diren horietakoa. Harpideek heziketa erdigunean jartzen duen komunitateko kide sentitzeko aukera dute; **HIK Hasik** komunitate horren beharrak asetzeko eta eragile izateko ahalegina egiten du. Denak ematen eta denak jasotzen. Denak elkar zaintzen.

Baina ez gara horrekin konformatzen. **HIK Hasi** komunitatea haztearekin amesten dugu. Oraindik betetzeko dauzkagun ametsak hezkuntza komunitate osoarekin partekatze eta erronkak elkarrekin erdiesteko. Eta

ametsak errealitate egiteko askatasuna behar da. Harpideok ematen diozue askatasuna **HIK Hasiri**. Aldizkari honen atzean diru irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat baitago —Xangorin—, eta ez diru-laguntzen menpe, ez iragarleen menpe egoteko, harpideek, hondarrak hondar, egiten duzuen ekarpen ekonomikoa funtsezkoa da hezkuntza berrikuntzaz euskaraz informatzen jarraitzeko.

Euskal Herrian euskarazko irakaskuntzan diharduten irakasleek eta hezitzaileek bere sentitzea nahiko genuke **HIK Hasi**. Euskal Hezkuntza komunitateko kide izateko erreferentzia garrantzitsua da erreminta hau, bai aldizkaria eta egitasmo pedagogikoa, oro bat.

HIK Hasikide izateak kontzientzia hartzea esan nahi du, Euskal Herriko hezkuntza esparruan dagoen komunitate bateko kide izatearen kontzientzia, horrek duen esanahi osoarekin, hartu eta eman, eman eta hartu horrekin. Eta irakurle zaituztegun irakasleok kontzientzia hartzea nahiko genuke. Irakurle izatetik harpide izateko urratsa egitera animatu, **HIK Hasikide** bihurtzera gonbidatu...

Hondartza handi batean hondar ale bakoitza txiki-txikia da, baina ale horietako bakoitza behar da hondartza osoa egiteko. Harpideak ezinbesteko dira **HIK Hasi** egiteko... Har ditzagun ametsak eskuetan eta joan gaitezen haien atzetik... *geroa elkarrekin idatziko dugu!*

“Hezkuntza despolitizatu ezin den neurri berean, hezkuntzaren digitalizazioa ere ezin da despolitizatu. Hezkuntzaren digitalizazioa ez da izaera neutralekoa”

Iratxe Esnaola



'HEZKUNTZA PLAZARA' ALDARRIKAPENAK HEZKUNTZA ERDIGUNERA EKARTZEKO PREMIA NABARMENDU DU



COVID-19ak ekarritako egoera ikusita, hezkuntza komunitateko zenbait ordezkari *Hezkuntza plazara* ekimena jarri dute martxan. Hasteko, pandemia egoeran hezkuntza komunitatearen lana aitortzea eskatu dute, eta aldi berean administrazioen utzikeria salatu dute. Hezkuntza komunitatea erdigunera ekartzeko beharra azpimarratzen dute: haurrak erdigunera; hezkuntza langileak erdigunera; eta familiak erdigunera.

Horrekin batera, aldarrikapen taula bat plazaratu dute, minimoak eta urgentziak biltzen dituen taula, eta puntu hauek aldarrikatzen dituzte: arrakalak gainditu eta inklusioa bermatzea; eskolak auzoan eta naturan gauzatzea; haurren eskubideak errespetatzea; ratioak jaisteak; langile gehiago kontratatzea; jangelak ikasle guztientzat zabaltzea; zaintza eta kontziliazioa bermatzea; eraldaketa pedagogikoari eustea; euskararen erabilera eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea; egoera berezi honetan curriculum malgutzea eta egokitzea; eta hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea bermatzea.

Azaroan zehar ikastetxeen eta norbanakoen atxikimenduak eta proposamen berriak jaso ditu ekimenak eta abenduaren 1erako mobilizazioak deitu zituzten.

ESKOLAK ZABALIK IZATEAREN ALDE DA OME

Osasunaren Munduko Erakunde OMEk pandemia egoeran egon arren, ikastetxeak irekita mantendu behar direla defendatu du, "gure seme-alabei hezkuntza bermatzeko". Erakundearen esanetan, eskolak ixtea ez da eraginkorra izurria eteteko eta ikastetxeak ixteak gazteen osasun mentalari kalte egiten dio, albotek sortzen baititu, tartean genero-indarkeria kasuak areagotzea.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN BI GREBA EGUN EGITERA DEITU DUTE SINDIKATUEK

Haurreskolak partzuergoko ELA, LAB eta Steilas sindikatuek bi greba egun egiteko deia luzatu dute, bata abenduaren 10ean eta bigarrena abenduaren 16an. Lan hitzarmenak eta akordioak betetzeko eta negoziatioak eskatzeko egingo dituzte lanuzteak. Sindikatuek gogorarazi dutenez, urrian ekin zieten mobilizazioei eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Haurreskolak partzuergoak oraindik mahai negoziatzaileira deitu gabe jarraitzen dute.

Hitzarmenik gabe langileen lan baldintzak okertu egin direla adierazi dute sindikatuek, eta zerbitzuaren kalitatea ere kolokan jarri dutela. Haur eskolak albo batera uztearen erantzulezat jo dituzte hala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila nola Haurreskolak partzuergoa, eta horregatik, Zorione Etxezarraga partzuergoko kudeatzailearen dimisioa eskatu dute sindikatuek.

Egoera bideratzeko, lan ituna betetzeko eskatu diote partzuergoari eta, adibidez, ordezkapenak egiteko. Era berean, partzuergoa Hezkuntza Sailaren barruan integratzea eta aurrekontua handitzea ere eskatu dute. Horrekin lortu nahi dutena da 0-3 hezkuntza zikloaren garrantzia aitortzea, jaiotzatik hezkuntza eskubidea izateko, eta Haurreskolak partzuergoaren doakotasuna eta sarbide unibertsala bermatzeko herritar guztiei.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

LOMLOE IZANGO DA HEGO EUSKAL HERRIAN ERAGINA IZANGO DUEN HURRENGO HEZKUNTZA LEGEA



Hemendik aurrera LOMLOE izango da Hego Euskal Herrian eragina izango duen hezkuntza legea. LOMCEri lekua hartuko diona. Madrilgo Kongresuak onartu ondoren, orain Senatuak onartzea falta da. EAJk lege berria onartu du eta EH Bilduk abstentziora jo du. Erantzun gazi gozoa izan du Euskal Herriko alderdi politikoen eta hezkuntza eragileen aldetik. Gehiengoak onartu du LOMCE baino hobea dela, baina baita azpimarratu ere ez dela "gure legea". Josune Gorospe EAJko diputatuak adierazpenak dira honako hauek: "Gure legea ez da ez LOMLOE, ez Espainiako beste edozien hezkuntza lege: EAJren legea laster Eusko Legebiltzarrean onartuko den euskal lega da". EH Bilduk uste du LOMLOE "gure helburuetatik oso urrun dagoela, ez dela aldaketarako behar dugun tresna". Irmoki defendatu dute hezkuntza eskumen eksklusiboak Nafarroako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeei dagozkiela. Ez dute nahi Madrilek "nabarmen" zehaztea xedea, kompetentziak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio-irizpideak.

Hezkuntza eragileen iritziz ere, LOMCE baino hobea da, baina "motz" geratzen da. ELAk, LABk eta Steilasek, hirurek diote ez dela "gure hezkuntza sistemak behar duen hezkuntza legea". ELAk dio "nazio ikuspegitik eskumenen inbasio bat dela oraindik". LABek gaitzetsi du ez egotea Euskal Herri osoan murgiltze-eredua bermatuta, Nafarroaren aipamena eginez. Steilasen iritziz, "egiturazko arazoak konpondu beharrean, betikotu egiten ditu, hala nola pribatizazioa eta horrek dakartzan arazo guztiak". Ikastolen Elkarrekin pedagogikoki aurrerapausoak ikusten dizkio, baina curriculum propioa garatzeko zailtasunak ere bai. Politikoki "atzerakoitzat" jo du. EHIGEk "hezkuntza publikoa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa eraiki nahi du hemen, eta ez bata ez bestea ez dira izan eztabaidaren muin Madril". Heizek curriculumaren zurruntasuna ikusten du eta hori marra gorria da eurentzat. Sortzenek salatu du "pedagogikoki aurrerapauso bat dela dirudien arren, oraindik curriculumaren erdia Madrildik zehaztuko dute".

LOMLOE LEGE BERRIAREN ALDAKETA NAGUSIAK

LOMCE legearen lekuko hartzera datorren LOMLOE legeak hainbat aldaketa ekarriko ditu eta eragina izango dute Hego Euskal Herriko ikastetxeetan. Honako puntu hauek jasotzen ditu, besteak beste:

Gaztelania ez da izango irakaskuntzarako lehen hizkuntza. Curriculumaren erdia zehaztuko du gehienez gaztelaniaz besteko hizkuntzak dituzten erkidegoetan.

Erljioa ez da notarako aintzat hartuko. Aukeratzen ez dutenek, ez dute ordeztu beste ikasgai bat egin beharrik izango. Halere, legeak jaso du beste irakasgai bat emateko aukera ere: Erljioen kulturaren irakaskuntza ez-konfesionala.

Hezkuntza bereziari dagokionez, hamar urte igarotzerako, ikastetxe arruntek baliabideak eduki beharko dituzte behare berezietako haurrak artatzeko.

Ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeek ez dute jasoko diru laguntza publikorik.


Sare publikoa honela definitzen du: "Hezkuntza publikoa hezkuntza sistemaren ardatz egituratzailea da". Ez diete lurzoru publikorik emango itunpeko ikastetxeei.

0-3 etaparako leku publiko gehiago jarriko dituzte.

Batxilergoan lau aukera izango dira: zientzia eta teknologia, giza eta gizarte zientziak, artea eta orokorra. Azken hori izango da berrikuntza, eta arlo zientifikoko eta letretako gaiak uztartuko ditu.



PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN 'AMAREN INTXAURRAK' DISKO-LIBURU ETA IKUSKIZUN BERRIA MARTXAN DIRA



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen proiektu berriak heriotzaren gaia lantzen du. "Amaren intxaurrak" du izena eta disko eta liburuaz gain, ohi bezala, ikuskizuna prestatu dute. Naturak heriotza ulertzen lagunduko die pailazoei egitasmo berrian. Abenduko emanaldiak hauek izango dira:

- Abenduak 4: Gares (Nafarroa); kiroldegian, 18:00etan.
- Abenduak 5: Hondarribia (Gipuzkoa); Itsas Etxea auditorium-ean, 16:00etan eta 19:00etan.
- Abenduak 11: Antsoain (Nafarroa); antzokian, 17:00etan eta 19:00etan.
- Abenduak 13: Ondarroa (Bizkaia); kiroldegian, 16:00etan eta 19:00etan.
- Abenduak 16: Zizur Nagusia (Nafarroa); frontoian, 18:00etan.
- Abenduak 19: Barakaldo (Bizkaia); antzokian, 12:00etan eta 17:00etan.
- Abenduak 23: Azkoitia (Gipuzkoa); antzokian, 16:00etan eta 18:30ean.
- Abenduak 26: Durango (Bizkaia); Landakon, 16:00etan eta 19:00etan.
- Abenduak 27: Gasteiz; Mendizorrotzan, 12:00etan eta 18:00etan.
- Abenduak 29: Bermeo (Bizkaia); frontoian, 16:00etan eta 18:30ean.
- Abenduak 30: Bilbo; Campos Eliseos antzokian, 16:00etan eta 19:00etan.

Informazio gehiago: www.katxiporreta.eus

DURANGO AZOKAKO IKASLE GOIZA ABENDUAREN 4AN ETA ONLINE IZANGO DA AURTEN

Aurtengo Durangoko Liburu eta Disko azoka online izango bada ere, ikasleentzako eguna mantenduko da. Abenduaren 4ko goiza izango da ikasleentzat bereziki zuzendutakoa eta eskaintza oparoa prestatu du azokak Euskal Herriko ikasleentzat.

www.durangokoazoka.eus atarian 5 eta 16 urte bitartekoek egitarau zabala izango dute, euren ikastetxeetatik sartu eta aukera dezaten. Besteak beste, hainbat tailer eskainiko dira online: bikoizketaz, ilustrazioaz, liburu bat sortzeko prozesuaz... Yogipuinak izeneko saioa ere izango da txikientzat. Zuzeneko elkarrizketa saio bat ere egongo da Oihan Vegak eta Goizeder Mayok gidatuta, eta Liher, Kai Nakai, Erika Elizari eta Aitor Arana elkarrizketatuko dituzte.

Tailerretan parte hartzeko ez da aurrez izena eman behar. Egunean bertan edo aurreko egunetan webgurena sartzearekin nahikoa izango da.

Hik Hasiren materialak ere online erosteko aukera izango da Durangoko Liburu eta Disko azoka birtualean.



HIZPIDE IZANGO DA

PALINDROMOEKIN JOLASTEKO ERAKUSKETA DAGO ZABALIK DONOSTIAKO ERNEST LLUCH KULTUR ETXEAN

Lehendabizi liburua eta orain erakusketa. Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia sortzaileek palindromoetan oinarritutako *Abere ba. Palindromo ilustratuen piztegia* iburua argitaratu zuten Pamiela argitaletxearekin, eta orain izen bereko erakusketa bat dute irekita Donostiako Ernest Lluçh kultur etxean. Animaliekin lotutako 101 ilustrazio jarri dituzte ikusgai, bakoitza dagokion palindromoarekin, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera modu berean irakurtzen diren hitzekin edo testuekin. Horrez gain, berrogei testutik gora daude, eta baita animazioak eta bideoak ere.


Bitarteko horiekin guztiekin hitzen ahozkitasuna lantzea da helburua. Hitzekin eta letrekin esperimentatzeko gonbita egiten du erakusketak, hitzei buelta emateko eta beste zentzu bat bilatzeko aukera irekitzen baitu. Jolas hori adin guztietakoek egin dezakete: haur txikienek irudietan izan dezakete interesa, irakurtzen hasi diren gaztetxoek palindromoetan finkatu ohi dute arreta, eta helduentzat hausnarketarako bidea ematen du. Egileek azpimarratu dutenez, euskaraz sortu duten lana izan da, euskalgintzarentzat egindako lana, eta ezin da beste hizkuntza batera itzuli. Erakusketa bisitatzeko aukera 2021eko martxoaren 13ra arte luzatuko da.



'ESPERIMENTAZIOAN SAKONDUZ BIZIBERRITU' LIBURU BERRIA ARGITARATU DU HIK HASIK

Natura, askotariko materialak, sormena, ikerketa, jolasa... eskuak, hankak eta burua mugiarazten dituzten ideiak eta proposamenak biltzen dira **Hik Hasik** argitaratutako liburu berri honetan: *Esperimentazioan sakonduz biziberritu*. Alex Barandiaran eta Larritz Esnaola HUHEZIKo irakasleek ondu dute hezitzaileentzat zein gurasoentzat leiho berriak ireki ditzakeen liburua.

Hamaika kapitulutan alderdi teorikoa eta praktikoa uztartzen dira. *Inspiratu, esperimentatu eta sortu* lelopean, umeei esperimentatzen uzteko gonbita egiten dute egileek, eta horrekin



batera, helduaren lana zein den azaldu ere bai: umea esperimentaziora hurbiltzea, bizipen horiek zehazki deskribatuz, prozesu horiek dokumentatuz eta irakasleen artean eztabaidatuz, hausnartuz, ondoren familiei erakusteko. Liburu honen asmoa irakasleei egiteko horretan laguntzea da, bai eta inspirazio-iturri bihurtzea ere.

Makilak, botoiak, ontziak, pintzak, ura, buztina, ikatza, garbantzuak, kalabaza-pipitak, mahatsak, urrak, sagarraren azala, torlojuak, uztaiak, oihalak, ispilua... denak dizan daitezke baliagarri esperimentatzeko, sortzeko eta biziberritzeko.



Ongizatea, askatasuna, berezkotasuna, sormena, inplikazioa eta harremanak areagotzen ditu naturak. Haurren garapena, osasuna, heziketa eta sozializazioa sustatzen ditu izadiarekin kontaktuan egoteak. COVID-19aren testuinguruan, eta baita bestela ere, balioan jarri beharreko ingurunea da naturak eskaintzen diguna. Hik Hasik udazkenero Haur Hezkuntzarako antolatzen dituen jardunaldietan aurrez aurre ikusi eta entzun ahal izan ditugu izadiak hezkuntzari egiten dizkion ekarpenak, HUHEZIkko Iñaki Larrea, Heike Freire pedagogia berdeetan aditua, Ekoguneko hezitzaile Maialen Sistiaga, Alkizako herri eskolako Jone Zuaznabar, Ana Hernandez eta Asun Salaberria irakasleen eta Hernaniko Langile ikastolako Maite Ezponda, Agurtzane Rama eta Ana Quevedo irakasleen ahotatik.

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

‘Natura, eskola bizia’ jardunaldiak

Hik Hasik, udazkeneko 0-6 etapari begira antolatzen dituen jardunaldietan, atek zabaldu eta naturari begiratu dio aurtengoan. Bizi ditugun garai zail hauetan inoiz baino beharrezkoagoa dugulako naturara irten eta arnasa hartzea. Guztiok, baina zer esanik ez hurrek. Maila teorikoagoan nahiz praktikoagoan, naturak hurren garapenari, bizikidetzari eta heziketari egiten dizkien mesedeak ikusi ahal izan ditugu Zumaiako Zumaiena ikastetxean azaroaren 14an egin ditugun jardunaldietan, zailtasunak zailtasun, eta Zumaiena ikastetxeari esker, aurrez aurre egin ahal izan ditugun jardunaldietan. Joxe Mari Auzmendi Hik Hasikidea gabe egin diren lehen jardunaldiak izan dira, eta hari zuzenduak izan ziren jardunaldietako lehen hitzak.

HUHEZI fakultateko irakasle eta Psikologian doktore, Iñaki Larrea izan zen sarrera hitzaldia eskaini zuena, *Naturaren onurak hurren garapenean*; eta ondoren, Heike Freire pedagogia berdeetan aditua den irakasleak bi hitzaldi eskaini zituen, bata *Bernaturalizatze-prozesuak* izenekoa eta, bestea, *Giza naturaren aurpegiak*. Ondoren, maila praktikoagoan,

Ekoguneko Maialen Sistiagak hezkuntza kompetentziak garatzeko baliabide zehatzak azaldu zituen, eta azkenik, Alkizako herri eskolako Jone Zuaznabar, Ana Hernandez eta Asun Salaberria irakasleek eta Hernaniko Langile ikastolako Maite Ezponda, Agurtzane Rama eta Ana Quevedo irakasleek baso-eskolen esperientziak ezagutarazi zituzten.

“Gaur egun bizitzen ari garen egoera berezia da eta merezi du egoeraz hausnartzeko tarte bat hartzea, COVID-19a hurraren garapenean izaten ari den eraginen inguruan hausnartu eta pentsatzeko”, abiatu zuen hitzaldia Larreak. “2020a urte historikoa izaten ari da gauza askorengatik, bizitza aldatu zaigu; eta horrek eragin bat sortu du gugan: hemen galdetuz gero eragin hori positiboa ala negatiboa izan den, ia denok egongo ginatke desiratzen ea amesgaizto hau pasatzen den eta ea berreskuratzen dugun lehen agian horrenbeste baloratzen ez genuena”. Izan ere, HUHEZIKO irakaslearen arabera, pandemiaren ondorioak dagoeneko osasunean ere pairatzen ari gara, eta hori ziurtatzen duten hainbat ikerketen berri eman zuen:

1. “Hurraren garapenari dagokionez, COVID-19ak

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak



Parte-hartzaileak: Maialen Sistiaga, Iñaki Larrea, Asun Salaberria, Jone Zuaznabar, Heike Freire, Ana Hernandez, Ana Quevedo, Agurtzane Rama eta Maite Ezponda.

- ondorioak dauzka”, adierazi zuen Larreak, eta ondorio horiek ez dira mugatzen gaitza zuzenean pairatu duten haurrengana. “Ikerketak adierazten ari dira [Oshikawa et al., 2020] osasun kontuetan arazoak antzematen ari direla, ez horrenbeste COVID-19ak berak sortutako arrazoiengatik, baizik eta gehiago albo-kalteengatik. Hau da, COVID-19ak lehen osasun arreta zerbitzuen etete bat ekarri du, ez goaz medikuarenera haurrak gaixotzen direnean, edo lehen baino gutxiago joaten gara.” Periodikoki antolatzen diren jarraipenak ere, kasu batzuetan, atzeratu egin dira eta ikertzaile batzuek diote horrek ondorioak ekartzen dituela umeen osasunean.
2. Pandemia haurren osasunari eragiten ari dela esatean, osasun globalaz ari da Larrea, baina zehazki buru-osasunean ere ondorioak badirela gehitu zuen, hainbat ikerketatan oinarrituta [Marques de Miranda et al., 2020 Yeasmin et al., 2020]. “Gero eta ikerketa gehiago ari dira erakusten umeen beldurrak eta fobiak gehitzen ari direla, kalera irteteko beldurrak, sozialki harremanak izateko beldurrak ere izaten ari direla umeak. Zentzu horretan, bada hausnartzeko gai bat zein beste albo-kalte ekartzen ari den pandemia”.
 3. Haurren elikaduran ere ondorio ezkorrak antzematen ari dira, bereziki itxialdiren ondorioz. “Ikerketa batek [Headey et al., 2020 Rundle et al., 2020], adibidez, adierazten du, okerrago jan dugula pandemia garaian eta okerrago jatearekin batera, gutxiago mugitu garela, jarduera fisikoa gutxitu egin dugula. Horrek esan nahi du gizentasuna ere badela COVID-19ak ekarritako beste kalte bat”.
 4. Ikusmenean ere antzeman dira, dagoeneko ondorioak: “Pantailen aurrean pasatako denbora, oro har, handiago da umeen partetik, eta haurren garapenaren aldetik, ikusmenean ere desberdintasunak ikusi dira eta miopiarren handitze bat aditzera eman dute ikerketa batzuek [Wong et al., 2020]”.
 5. Haurrekiko harremanetan ere aldaketak ekarri ditu pandemiak. Askotan helduek bizi duten estresaren eta larritasunaren ondorioz, haurrekiko tratua okertu egin dela ikusi ahal izan du irakasleak ikerketetan [Lawson et al., 2020]: “Gurasook ez dugu oso modu atseginean bizi izan etxean egotea eta askatasunaren murrizketa, horrek ondorioak dauzka heldu bezala umeekiko ditugun elkarrekintzetan eta esku-hartzeetan. Horrek, tratu txar fisikoak ez badira ere, tratu txar gisa izenda ditzakegun jarrerak jasatea eragin die hainbat haurri euren gurasoen partetik”.
 6. Haurren jolasa ere kaltetu du COVID-19ak. “Pandemia honek mugimenduaren eta jarduera fisikoaren gutxitzea ekarri du eta, horrekin, Kanadan egindako ikerketa batetik agerian gelditu da [Moore et al., 2020] umeek gutxiago jolasten dutela eta jarduera sedentarioa handiagoa dela, pantaileri loturik, bereziki. Hortaz, jolasaren kantitatea eta kalitatea gutxitu egin direla nabarmendu behar dugu”.
 7. Gisa honetako pandemia batek haurren osasunean izan ditzakeen kalteak zerrendatzeko, Larreak, COVID-19aren familiako beste birus baten inguruan egindako ikerketen ebidentziak ere ekarri zituen [Fan et al., 2020], koronabirusaren pandemiak, 2003ko SARS birusaren hedapena baino zabalagoa eta luzeagoa izanik,

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

ondorio antzekoak eragin ditzakeela aintzat harturik: “2003an zabaldu zen SARS birusari lotuta, Txinan hainbat urtetan egindako ikerketa longitudinal batean umeen garapenean mugarri diren zenbait elementu aztertu zituzten: noiz hasten dira umeak oinez; noiz esaten duten euren lehendabiziko esaldi osoa; Otik 10era kontatzen noiz ikasten duten eta esfinterren kontrola noiz gertatzen den. Ikerketa horrek adierazi zuen Txinako SARS pandemia pairatu zuten umeek atzerapena zeukata lortzen horietan, hau da”. COVID-19arekin lotutako ikerketa bat izan ez arren, irakasleak ondorioztatu zuen haurren jarduera, jolasa eta mugimendua gutxitzen ari den heinean, horrek ere ondorio batzuk izango dituela hemen eta orain gure umeen garapenean.

Koronabirusaren pandemia haurren osasunean izaten ari den kalteen inguruko ikerketak mahai gainean jarririk, gaixotasunaz beraz aparte, COVID-19ak ekarri dituen albo-kalteak “handiak eta kontuan hartu beharrekoak” direla azaldu zuen Larreak, “eta nik uste dut, gizarte bezala, ez ditugula gehiegi kontuan hartu”.

Baina izan da, haatik, zerbait baikorrik. Atera dugu gauza on bat garai ilun hauetatik. “Gauza on hori da, nik uste, pandemiari esker natura gehiago baloratzen ari garela”. Natura bizi dugun egoerari aurre egiteko “alternatiba gisa” ikusten hasi garela iritzi zion Larreak: “Pentsatzen dut, orain hemen, Zumaia inguruko mendietara joango bagina, mendiak jendez lepo egongo lirakekeela, eta hori aurrez ikusi ditugun albo-kalte horiei aurre egiteko modu bat da. Pertsonok badaukagu egokitzeko gaitasuna, testuinguruak jartzen dizkigun erronkei aurre egiteko gaitasuna daukagu, eta agian hortik etorri da, baita ere, naturaren aldarrikapena”. Hala ere, zehaztu zuen natura ez dela soilik COVID-19aren albo-kalteei erantzuteko baliabide bat, “esango nuke natura badela baliabide bat, COVID-19a egon ala ez egon, erabili beharko genukeena. Eta badaude hori adierazten duten ikerketak”. Irakasleak hainbat ikerketari egin zien erreferentzia, askotan naturaren onurez hitz egitean ebidentzia zientifikorik gabe hitz egiten dela iruditzen baitzaio, eta beraz, oinarri zientifikoa eta frogatua duten onurak azaldu zituen Zumaia-
na ikastetxean bildutako irakasleen aurrean:

- **Ongizatea.** Ikerketek natura ongizatearekin lotzen dute, ongizate fisiko eta mentalarekin, osasunarekin. Larreak ekarri zituen ikerketen arabera, naturan gaude-nean, printzipioz, “ongi sentitzeko aukera handiagoak dauzkagu; hori, aldi berean, ona da gure osasunerako, osasun fisiko eta mentalerako eta, oro har, gure garapenerako”.
- **Askatasuna.** Barru/kanpo dikotomiak askatasunari au-

kerak gehiago edo gutxiago eskaintzen dizkiela azaldu zuen irakasleak: “[Eskola] barruko egiturak askoz ere egitura zehatzagoak eta egituratuagoak dira; naturak askatasuna ekartzen digu; gauzak ikusteko askatasuna, eta baita esperimendatzeko askatasuna ere”. Zentzu horretan ikerketek natura aldarrikatzen dute haurren askatasun-sentsazioa areagotzen duelako.

- **Berezkotasuna.** “Haurrak aukera handiagoa dauka norbera den bezalakoa izateko kanpoan dagoenean”. Ideia hori askatasunaren ikuspegiarekin lotzen dute ikerketek, “barruko espazioetan, guztia askoz ere egituratuago dagoenez, gure esku-hartzea hor dago, espazioen antolaketan, materialen aukeraketan, proposatutako jardueretan... normalean, kanpoan haurrak askatasun handiagoa izaten du nahi duena nahi duen elementuekin egin ahal izateko”. Haurren berezkotasuna edo haurra benetan den bezalakoa izateko aukera handiagoa ematen du, bada, naturak.
- **Sormena.** Hezkuntza-proiektu askotan azpimarratzen den ideia da eskolak pertsona sortzaileak sustatzeko bokazioa izan beharko lukeela eta, ebidentzien arabera, horretan lagundu dezake izadiak. “Naturan egoteak sormena areagotzen duela ikusi da. Gure ikastetxean gure ikasleak sortzaileak izatea nahi badugu, ikerketek adierazten dute naturara hurbiltzea horretarako onuragarria izan daitekeela”.
- **Inplikazioa.** “Egiten ari den horretan nola inplikatzeko da edo nola sartzeko da umea? Naturan daudenean umeen inplikazioa handiagoa dela ikusten da barruan daudenean baino. Naturan daudenean jolasean gehiago sartzeko direla erakusten dute ikerketek, hau da, jolasaren kalitatea hobea dela”.
- **Harremanak.** Naturan egotea harreman aberatsagoekin lotzen dute ikerketek, bai harreman gehiago izatearekin eta baita erlazio horiek kalitate hobekoak izatearekin ere. Larreak zehaztu zuen, “kidegabe jokabide gehiago” erakusten dituztela haurrek izadian, eta euren arteko erlazioetan jokabide disruptibo edo gatazkatsu gutxiago gertatzen direla kanpo-espazioetan.
- **Naturarekiko errespetua.** Naturan murgiltzeak izadiarekiko errespetuan hobekuntza dakarrela ziurtatu zuen HUHEZIKO irakasleak: “Gure ekosistemaren kontzientzia handiagoa hartzen dugu naturan gaudeanean, gure rola garrantziaz konturatzen gara... eta hori ere ikerketetan azpimarratzen den beste onura bat da”.
- **Ikaskuntza.** “Natura ikasteko toki ere bada”. Franceso Tonucci *Fratoren* bineta bat ekarri zuen hizpidera Larreak, non irakasle bat ageri den haurrei udazkenaren inguruko azalpenak ematen, “hemen daukazue enborra

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak

eta hemen hostoak”, eta hori arbelean erakusten duen bitartean, kanpoan zuhaitz pila bat daude. “Ikaskuntza esanguratsua goa litzateke zuzenean naturara joatea eta bertatik bertara ezagutzea zuhaitz horiek. Leku askotan udazkena ariko dira lantzen proiektu gisa Haur Hezkuntzan, hosto bat hartu eta hostoaren marrazki bat egiten dute... kanpo-espazioan hosto mordo bat dagoenean. Zentzu horretan ikaskuntza esanguratsuari begira ere onuragarria da natura”.

- **Jolasa.** “Jolasa hobea da eta gehiago egiten da kanpoan barruan baino”. Iñaki Larrearen iritziz, kanpoko jolasak barruko jolasak nekez izan ditzakeen ezaugarriak ditu.

Hitzaldiaren hirugarren zatian jolasean murgildu zen irakaslea. Konparazio moduan, Haur Hezkuntzan barruko espazioetan zer egiten den eta kanpokoetan zer egin daitekeen aztertu zuen, barruan nola jolasten diren umeak eta nola jolasten diren kanpoan. Hiru dimentsioren arabera egin zuen sailkapena: barruko eta kanpoko jolasaren dimentsio motorea, dimentsio kognitiboa eta dimentsio soziala konparatu zituen, jakinda hirurak elkarrekintzan daudela eta batera gauzatzen direla.

Dimentsio motoreari dagionez, mugimendua mugatua egoten da gela arruntetan, “eta, horregatik, eta ez bakarrik horregatik, izaten ditugu psikomotrizitate-gelak, edota gela barruan mugimendu beharrari erantzuteko jartzen diren egiturak. Ahalegin interesgarriak dira umearen mugimendu behar horri erantzuteko eta jolas mugimendu hori aberasteko, baina kanpo-espazioetan aukerak biderkatu egiten dira”. Baliabide naturalak mugimendu jolas hori aberasteko elementuak dira eta elementu horiek ekarpen handia egiten dute alturan, sakontasunean eta har daitekeen abiaduran. Zentzu horretan, irakasleak azpimarratu zuen espazioak (izan natura, kanpo-espazioak eta baita barruko espazioak ere) estimulagarriak izan behar direla haurrentzat, “ez dut

esan nahi heldua egon behar denik umea estimulatzeko, baizik eta helduak umeari erronkak hartzea baimendu behar diola espazio horretan, izan erronka motorea edo kognitiboa”. Haurren gaitasunak eta mugak zalantzan jartzeko aukera ematen duten espazioak lehenetsi zituen irakasleak, eta alor horretan naturaren ekarpena paregabea dela aitortu zuen.

Dimentsio kognitiboari dagokionez, materialek bizipena eta ikasketa baldintzatu ditzaketela kontuan izanik, Larreak adierazi zuen barruko materialak askotan jolas sinbolikoari begirakoak izaten direla, eta material horietan hobekuntzak egin badira ere, “gero eta joera handiagoa dago komertzializatutako elementu horiek naturalak — egurrezkoak — izan daitezkeen”, naturako material askotarikoek aberatsagoak izaten jarraitzen dute. Izan ere, haurrei plastikozko edo egurrezko kotxeak, hegazkinak... eskaintzen dizkiegunean guztiok modu berean interpretatzen ditugu material horiek, aldiz, material desegituratua eskaintzen diegunean, interpretazioak oso anitzak izango dira. “Zer da makil bat? Makil bat kotxe bat izan daiteke; edo eskopeta bat; beste momentu batean telefono bat edo auskalo zer. Guztiz egituratutako materiala oztupo izan daiteke naturak berak eskaintzen dizkigun material desegituratuen aurrean. Eta hori bada beste ekarpen bat. Ez du esan nahi kotxe horiek baztertu behar ditugunik, baina kontziente izan behar dugu gauza ezberdina eskaintzen duela material batek eta besteak”.

Antzeko zerbait gertatzen da eraikuntzekin ere, Larreak azaldu zuenez. Gela barruan blokeen bidez ase ohi da haurrek eraikitzeke duten beharra, aldiz, kanpoan aukerak biderkatu egiten dira beste behin: materialak eta tamainak ugaritu egiten dira, eta balio erantsia hartzen du kanpoko jolasak, adituaren hitzetan. “Jolasa beti ona dela azpimarratu behar dugu, baina ezaugarrietan ezberdintasunak egon daitezke”.



GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...



Argazkiak: Alkizako herri eskola.

Dimentsio kognitiboarekin jarraituz, eskolak daukan esperimentazioa sustatzeko betebeharrari erantzuteko gela barruetan dauden mugen aldean, aukera zabalak eskaintzen ditu naturak. “Kanpora baldin bagoaz, adibidez, ura eduki dezakegu, errekatxo bat, eta haurrek ikusten dute euria egiten duenean hazita doala erreka eta, beste batzuetan, berriz, ur gutxiagorekin”.

Dimentsio sozialari dagokionez, geletako harremanak, askotan, mugatuta egoten direla aipatu zuen irakasleak, “eta zailtasunak egoten dira, edo gelako lagunekin egon behar dute haurrek beti”. Naturak eskaintzen digun planteamendua zabalagoa da: “Natura espazio bat da non gela ezberdinetako umeak, adin ezberdinetako umeak elkartu daitezkeen. Hori barruko espazioak ere eskain dezake, baina ez da ohikoena. Zentzu horretan naturak ere ekarpena egin dezake, eta aukera ematen du umeen artean batak besteari laguntzeko, adibidez, erronka motoreetan; adin aniztasunari toki eginez, imitazio ekintzak areagotzen dira...”

Dimentsio sozialari lotuta, geldiupe bat egin zuen irakasleak helduok oso ondo bizi ez dugun borroka-jolas edo jolas zakarraren ideian. “Borroketara jolastea normalean helduok ez dugu oso ondo bizi, ‘hori ez da jolasa’, ‘mina hartu behar duzue’ ... eta horrelako mezuak bidaltzen dizkiegu askotan umei. Ikerketek azpimarratzen dute borroka jolasak edo jolas zakarrak ere jolasa direla, eta garrantzitsua dela, gainera, umeen garapen sozioafektiborako, eta, zentzu horretan, garrantzitsua litzatekeela helduok hori baimenentzea”. Irakasleak jakitera eman zuenez, ikerketek erakusten dute helduok permisiboagoak garelako kanpoan gaudenean jo-

las zakar horien aurrean, gelan gaudenean baino. “Ez dago zehazki naturarekin lotuta, baina desberdintasun bat”.

Dimentsio sozialari loturik, baita ere, generoari ere egin zion erreferentzia. “Generoari dagokionez, ikusten dugu, adibidez, gela barruan oso *mutilena* izaten dela eraikuntzatxokoa; aldiz, kanpoan askoz ere orekatuagoa da genero aldetik eraikuntza jolasaren gauzatzea. Kanpoan daudenean neskak eta mutilak batera jolasten dira barruan ez bezala”.

Izadiak haurtzaroari eta hezkuntzari dakartzkien onuren inguruko hiru ideia azpimarratuz bukatu zuen HUHEZIKo irakasleak bere hitzaldia:

1. “Naturaren ekarpena handia da eta ez da bakarrik COVID-19aren ondorioz; natura beti sustatu beharko genukeen zerbait da”.
2. “Natura umearen garapena sustatzeko goi mailako baliabidea da eta horren jakitun izan beharko genuke”.
3. “Jolasa (eta jolasa esaten ari garenean garapena esaten ari gara, jolasa delako garapenerako daukagun baliabide garrantzitsuena) aberastu egiten da. Jolasa beti da ona. Barruko jolasa ere ona da, baina naturan gaudenean, jolasak beste ezaugarri batzuk hartzen ditu eta ezaugarri horiek garrantzitsuak dira. Ez da natura bai / barrukoa ez, kanpoko jolasa eta barruko jolasa osagarriak izan daitezke. Naturaren aberastasuna nabarmenduko nuke; mugimendua aberasteko bitarteko primerakoa da; pentsamendua garatzeko ere bai; sinbolismoan sakontzeko; pentsamendu konplexua sustatzeko; eta baita harremanak hobetzeko eta generoari dagokionez ere aberatsagoa da natura”.

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak

Natura gugan eta gu naturan bilatzeko beharra

Pedagogia berdeetan espezialista da Heike Freire. Hezitzaileak formatzen ditu gaien eta eskolei laguntzen die hezkuntza-proiektuak naturara gerturatzeko. Bernaturalizatzeko prozesuen inguruko hitzaldia eskaini zuen, izadiarekin konektatzeko onuretan sakonduz.

Haurtzaroaren kulturaren eta hezkuntza berrikuntzan aditua da Heike Freire eta osasunaren ongizatearen eta ikaskuntzaren harremanei buruz naturan egin dituen ikerketei eta dibulgazio-lanei esker, pedagogia berdearen nazioarteko erreferente bihurtu da. **Hik Hasik** eskaini dituen jardunaldi eta ikastaro ugaritan parte hartu du, eta oraingo honetan bernaturalizatzeko prozesuei buruz hitz egin zuen Zumaiian. *Berdean hezi* liburu arrakastatsuen ondotik, *Patios vivos para renaturalizar la escuela* (Atari biziak eskola bernaturalizatzeko) liburua koordinatu berrikan etorri da, hain zuzen ere, **Hik Hasik** naturari eskaini dizkien Haur Hezkuntzako jardunaldietara.

Bernaturalizatzeeaa lagun naturalistei eta biologoei ebatsi eta hezkuntzara ekarri beharreko hitza dela uste du pedagogoa, Mendebaldeko kulturaren gizakiaren eta naturaren artean ikusten duen amildegia dela-eta: “Badira 2.000 urte (edo agian 5.000, nire lagun feministek esaten duten bezala, patriarkatua ezarri zenetik) naturatik urruntzen hasi garela. Platonek berak natura/kulturaz hitz egiten zuen; sentsibilitatearen mundua eta inteligentziaren munduaz hitz egiten zuen. Sentsibilitatearen mundua engainagarria dela esaten zuen, eta ideien mundua benetakoa dela. Greziarregandik jaso genuen adimena/gorputza banaketa; animalia/giza animalia bereizketa; eta baita ingurune naturaletik urruntzen gaituzten hamaika bereizketa ere, gizakiak natura izango ez bagina bezala”. Mendeetan zehar, bereizketa hori urruntze fisikoa, emozionala, mentala, intelektuala eta espirituala izatera iritsi dela azaldu zuen. Bernaturalizatzeko prozesuekin laguntzera joaten den eskoletako adibidea jarri zuen, urruntze hau islatzeko: “Ikastetxei galdetzen diedanean ‘naturaz, zelan?’, guztiak, ‘oso gaizki’ erantzuten didate, ikastetxe gehienak hormigoiz



inguratuak baitaude. Baina arakaten hasten gara eta urrutiegi joan gabe aurkitzen dugu laranjaondo-zelai bat, baso bat; baratze bat, urmael bat... hori bai, guztiak burdinazko langaz inguratuak eta hesituak. Hain gaude urrun, oso garrantzitsua dela bernaturalizatzeko”.

Amildegia hori eragin duena, Freireren ustez, munduarekiko ikuspegi antropozentrikoa da. Milla Moira lider maputxearen hitzekin azaltzen du Freirek gizonak naturaren gainetik jartzeak dakartzan ondorioak: “Gizona gainjarri zaio naturari, bera dago piramidearen goiko erpinean egoismoz eta materialismoz betea, dio Moirak; gizona sinetsita dago onena bera dela eta bere zerbitzura daudela gainerako izakiak, eta lider maputxeak dio munduaren ikuspegi antropozentriko honek antinatural bihurtu gaituela. Aldiz, kultura indigenentzat munduarekiko harremana ez da piramide itxurakoa, zirkulu baten itxurakoa baizik, non bizitza eta biosfera osatzen duten izaki guztiak elkarri lotuta dauden ezin bortxatuzko zirkulu batean”.

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...



A gaztirik, Elixabet Menendez

Naturarekiko ikuspegi sistemikoa eta konplexua berreskuratzea beharrezko ikusten du Freirek: “Naturan dena elkarrekiko harremanetan dago; Ozeanoetan baleak gutxitzeak zerikusia dauka errekan gora izokinen kopurua jaisten joatearekin... eskuetan dituzuen orriek hodeiekin eta ureztatzen dituzten zuhaitzekin... Natura sustengatzen eta zaintzen eta elikatzen gaituen izaki bizidun bat dela ulertu behar dugu”. Fritjof Capra, James Lovelock, Jane Goodall eta beste hainbat adituk bezala, “bizitzaren sarea” deitzen dio naturaren egiturari Freirek. “Bernaturalizatzeaz hitz egiten dugunean biozentrismo honetara itzultzeaz ari gara, gizakia berriro ere, berez eta naturaz dagokion leku horretan kokatzeaz”.

Eta hezkuntzak, Freireren aburuz, egiteko garrantzitsua dauka gizartea naturara gerturatzeko garaian: “Gaur eta hemen hezitzaileok esku hartu behar dugu zer-nolako gizakia hezi nahi dugun erabakitzerakoan, hezkuntza hori baita: gizakien bidelagun izatea, eta bidelaguntza hori norabide batean edo bestean egin dezakegu. Egin dezagun bidelaguntza bizitzaren sarean sartzeko gai izango diren gizakientzat, bizitza maitatuko duten gizakientzat”. Hizlariaren aburuz, une garrantzitsua da aurrean daukagun hau: “Gizateria naturatik aldentzen ari da, eta uste dut hezitzaileok geure jarrera argitu beharko genukeela puntu honetan”.

Zertaz ari gara ‘bernaturalizatzeaz’ ari garenean?

Heike Freirek filosofia maite du, eta hitzen benetakotasuna bilatzen du, filosofiak bezala. Beraz, bernaturalizatzeaz ari denean ez da ari eskola atarian zuhaitz batzuk landatzeari buruz. Bernaturalizatzeaz ari denean prozesu bikoitz bati

buruz ari da Freire: “Gure lekua naturan aurkitzeaz ari gara; nirea, gurea, gure taldearena, gure eskolarena, gure familiarena, gure herriarena, gure hiriarena... orekarekin eta beste izakiekin harmonian bizitzaarekin zerikusia du prozesu horrek, humanizazioarekin eta antinatural izateari uztearekin lotura estua dauka. Baina natura geuregan aurkitzeari buruz ere ari da, eta prozesu horrek benetakotasunarekin, norbera izatearekin eta naturaltasunarekin dauka zerikusia”. Prozesuari ekiteko memoria baliatzea proposatzen du: “Guregan natura bilatzea memoria ariketa bat da, zein garen gogoratzea; gure askatasuna eta gure erantzukizuna berreskuratzeo memoria ariketa bat da”.

Bernaturalizatze-prozesuez hitz egiten du Freirek, eta *bernaturalizatze* hitzaren funtsa azaltzearekin batera, *prozesu* hitzean ere arreta berezia jarri zuen pedagogoak: “Esan dugu bernaturalizatzea ez dela ikastetxe atarian landareak jartzea, baina hori ere izan daiteke; banku batzuk jartzea ere izan daiteke eta ikastetxe inguruko zelai batera pixka bat ateratzea ere izan daiteke. Baina kontuan izan behar dugu horiek urratsak direla. Bernaturalizatze-prozesua oso luzea da, eta gero eta gehiago sakonduz joan daitekeen prozesua da, gainera, norbere lekua naturan bilatzeko prozesuan eta naturan norberagan bilatzeko prozesuan ere sakontzen joan daiteke. Baina, beti ere, prozesu gisa ulertu behar ditugu, maitasunak eta zaintzak gidaturiko prozesu gisa”.

Zaintza hitz-gakoa da, Freireren arabera, bernaturalizatze-prozesuetan. “Eskolentzako oso aberatsa da hain oinarrizkoa eta funtsezkoa den zaintza irakastea, eta haurrek beste

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

'Natura, eskola bizia' jardunaldiak



izakiak zaintzeko aukera izatea". Zaintza eskolako irakasgai garrantzitsuena izan beharko litzateke pedagogoarentzat, eta zaintzen ikasketarako animaliekin harremanetan izatea oso aberasgarria ikusten du.

Abiapuntua: hezitzaileen jarrera aldatzea

Hezitzaileak formatzen dihardu Heike Freirek, Pedagogia Berdeen Goi Mailako Ikasketak ematen ditu, eta bernaturalizatzeko prozesuak gauzatu nahi dituzten ikastetxeei ere bidelaguntza eskaintzen die. Esperientziak erakutsi dio haurrentzako errazagoa dela bernaturalizatzeko prozesuetan murgiltzea hezitzaileentzako baino: "Haurrek baino gehiago hezitzaileek eurek izaten dituzte arazoak edo erreparoa naturara murgiltzeko. Hezitzaileek garelako oinarria, pentsamendua eta kultura aldatu beharra daukagunak". Hezitzaileen arabera izan daiteke haurrek basoan, zelaian edotako bestelako berde-guneetan har dezaketen jarrera. "Orain modan dagoela esan genezake haurrak naturara ateratzea, baina gero, zer-nolako irudiak ikusten ditugu? Naturan modu naturalean joka dezakegu, bai, baina maniobra militarrek ere egin ditzakegu naturan, beraz, bernaturalizatzeko prozesuetan eta, oro har, naturara ateratzen garenean, gure jarrera, hezitzaileen jarrera zer-nolakoa den hausnartu behar dugu". Haurrak naturara eramatea garrantzitsua da, baina garrantzitsua da, baita ere, zer egiten dugu han eta nolako bidelaguntza egiten duten hezitzaileek eta zer kultura transmititzen dieten haurrei. "Arreta berezia jarri behar dugu gure jarreretan, bizitzarekiko zaintza- eta maitasun-kultura bat landu behar dugu, haurren artean eraikitzen diren harremanetan arreta jarri

behar dugu, nola antolatzen garen..." Bernaturalizatzeko prozesuak naturan egotearekin bakarrik ez, izadian jarrera onarekin eta errespetuz egotearekin lotura duela zehaztu zuen Freirek: "Ingurune naturalean pertsona talde batek hartzen duen jarrera oso garrantzitsua da, askotan ikusten ditut haurrek hondatutako basoak edo gaizki trataturiko animaliak.... hezitzaileon ardura da kontsumo gizarte honetan hain zabaldua dagoen harrapakariaren kulturatik haragoko bestelako kultura gizatiarrago eta naturalago bat transmititzea haurrei". Giltza hezitzailearen begiradan dago, Freirentzat: "Haurrek naturara irtetea izan ditzakete hainbat zailtasun, hala nola, biofobia kasuak, euren artean erlazionatzeko arazotxoak, arriskuak neurtzen ez jakitea... baina gainditu daitezkeen arazotxoak izango dira, betiere hezitzailea modu natural batean haurren bidelagun izateko prest baldin badago".

Hezitzaileek naturara irtetea sentitzen duten lehen ezintasunetako bat, Freirek ikusi ahal izan duenaren arabera, "eta orain zer egin?" izan ohi da. Horren aurrean, pedagogia berdeetako adituaren ustez, aldatu behar dena ez da eszenatokia bakarrik, ez da nahikoa gelatik basora edo zelaira ateratzea, baizik eta pentsamendu psikopedagogikoa da kanbiatu beharrekoa: "Nire ustez, akats bat da eskola barruko praktikak zalantzan jarri gabe eta bere horretan naturara ateratzea. Niretzat akats bat da matematikak harritxokien edo makiltxoekin irakastea naturan; akats bat da hango edo horko eskolan egiten dutena bere horretan hartu eta guk kopiatzea; bernaturalizatzeko prozesuak singularrak eta bakanak direla diogunean, hezitzaileek eurek lehen-

GAIA: NATURAREKIN BAT IZAN ETA...

dabizi eta, ondoren, taldean hausnartu eta pentsatu behar dituzten prozesu eta ekintzei buruz ari gara”.

Praktika horiek naturara egokitzean hezitzaile bakoitzak zehaztuko ditu bere gida-lerroak. Freirerekin formatu diren irakasleek, kasu batzuetan, haurrekin partekatu nahi dituzten bizipenak lantzen dituzte aurrez, euren orientabide curricularraren arabera, edo haurren inguruko behaketa zehatzean oinarrituz eta haur bakoitzak banaka zein taldean dituen beharren arabera —izan behar sozial, emozional edo kognitiboa—. Beste bide bat izan daiteke gauzak gertatzeko aukerak uztea eta ondoren gertaturiko horretan bidelaguntza eskaintzea... “Baina gakoa hezitzaileak bere giza naturarekin eta bere benetako beharrekin konektatzea da, ondoren naturarekin konektatu eta haurren eta taldeen bidelagun izateko naturako espazioetan”. Konexioa bilatzeko, galdera bat pausatu zuen Freirek, hezitzaile bakoitzak bere buruari egin beharko liokeena: “Zer-nolako pertsonak nahi ditugu? Zer nahi duten badakiten pertsonak, osoak, erronkak onartzeko prest daudenak, soluzioak bilatuko dituztenak, sozialak, zaintzaileak? Hezkuntza-proiektu guztiak hemendik abiatu behar dira, eta ondoren aztertuko dugu balio eta lehentasun pedagogiko horiek nola gauzatu eta nola izan haur horien bidelagun”.

Naturara ireki eta naturarekin konektatzeko prozesuetan murgiltzeak, ezinbestean hezkuntza-ereduaz hausnartzea dakar, Freireren aburuz: “Hezkuntzaren alderdi kognitibista alde batera utzi behar dugu; haurra *a* idazteko gai den edo 2tik 5era zenbatzeko gai den pentsatzeri utzi eta ikusi ea zuhaitzera igotzen denean pozik jartzen den; nola erlazionatzen den kideekin; erronkei aurre egiteko gai den; maite dituen gauzekin harremanetan al dagoen...”. Heziketaren ikuspuntu holistikoa aldarrikatzen du Freirek: “Nik 25 urteotan ezagutu ditudan hezitzaile onenak euren



ikasleak sistematikoki ikasle roletik ateratzen dituztenak izan dira, hezkuntza arduraz eta sormenez bizi duten hezitzaileak izan dira, hezkuntza bizitza bezain modu aktiboan ulertzen dutenak, ez han eta hemen ikastaroak egin eta pasiboki han eta hemen jasotakoa kopiatzen duten hezitzaileak”.

Bernaturalizatzeko prozesuak ere ezin dira kopiatu, tokian tokian bakanak eta bereziak dira, ez du balio beste ikastetxe batean edo beste toki batean egin den prozesua hartu eta bere horretan gurera ekartzeak, Freirek azaldu zuenez: “Taldea bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren izatea berreskuratzeari buruz ari gara, eta ikastetxe bakoitza oso desberdina da ondokoekiko. Ez du balio hondartegia edo eskalada-murrua hala edo hola jartzea, baizik eta prozesu hori modu bakan eta singularrean bizitzea da garrantzitsua”. Eta prozesu horretan, nabarmendu zuen pedagogoak, ez dago akatsik: “Norbera berez zer den bilatzeko prozesua ezin da oker egon”. Izatekotan, ikasteko aukera ematen duten huts-egiteak egon litezke: “Naturan akatsa ikasketa-prozesuko urrats bat besterik ez da; akaso, haur batek basoan txabola bat eraikitzen duenean, ba al dago akatsik?”.

Ikastetxeak bernaturalizatzeko prozesuetan murgiltzearen beste aberastasun bat, hizlariaren arabera, naturara gerturatzearrekin batera hezkuntza-komunitateak batzen dituela ikustea da. Lehenik irakasle-taldea, Freirerentzat aldaketa oro taldetik abiatu behar baita: “Taldea dago indarra. Hezkuntza berrikuntzari buruzko ikerketa guztiak gauza bera esaten digute; berrikuntza taldearen baitan dago. Hori da benetan inporta duen gauza bakarra. Hezitzaile bakoitzaren banakako lana eta formazioa oso garrantzitsuak dira, bai, baina talde-kohesioa funtsezkoa da, adabakiak josten aritu beharrean, bidea elkarrekin jorratzea da garrantzitsua”. Eta irakasle-taldearekin batera, hezkuntza-komunitatea. “Prozesu hauetan familiak ez daude alde batean eta hezitzaileak bestean; harremanak estutu egiten dira familien eta hezitzaileen artean, baina baita inguruko komunitatearekin, nekazariekin, baserritarrekin, elkarteekin eta abarrekin ere eta, zer esanik ez, eskola ingurura etortzen diren izakiekin, txoriekin, intsektuekin... Ikasketa eta deskubrimendu-prozesu bat da guztientzat”.

Prozesu hauek zaintzak eta maitasunak gidatzen dituela esan zuen hasieran Heike Freirek, baina hitzaldiaren amaieran gehitu zuen ametsak eta irudimena direla benetako gidari: “Elkartzen gara eta gauzak pentsatu eta amesten ditugu, eta ondoren egin egiten ditugu”.



“Mundua alda dezake hezkuntzak,
baina ez berak bakarrik, beste
erreforma sozial, politiko eta
ekonomikoak behar dira”

ELKARRIZKETA:

JOXI IMAZ

SOZIOLOGOA ETA EHU-KO IRAKASLEA

'Hezkuntzaren Soziologia' liburua plazaratu berri du Soziologian lizentziatua eta doktore den unibertsitateko irakasle honek. Gizartearen eta hezkuntzaren arteko harremana gai nagusitzat hartuta, hamaika galdera mahaigaineratu ditu, horietako bat hauxe: zein gizarte mota nahi dugu? Erantzunaren arabera, hezkuntzak harantz egin beharko duela dio. Eraldaketa soziala egitea ez dela utopia

bat dio eta utopia hori lortzeko hezkuntza beharrezkoa dela, baina ez bakarrik, beste eragile batzuen laguntzarekin baizik, familia eta lagun taldeak kasu. Erpin asko gurutzatzen dira hezkuntzarekin: generoa, politika, ekonomia, kultura... Gizartea gurutzatzen duten guztiak. Soziologo on bezala, ikerketak ditu oinarri eta, oraindik bizi dugun testuinguruaz ikerketa asko ez dauden arren, berau ere izan dugu hizpide.



Orain, COVID-19aren testuinguruan, argitaratu berri duzun *Hezkuntzaren soziologia* liburuari kapitulu bat erantsi beharko bazenio, zer puntu jasoko zenituzke kapitulu horretan?

Kostatzen zait COVID-19aren historia hau gaira ekartzea, ez dut asko sakondu oraindik. Aurreneko hausnarketa zera izango litzateke: denbora beharko nukeela kapitulu hori idazteko. Normalean Soziologian ikerketekin lan egitea gustatzen zaigu eta oraindik egoeraz ez daude ikerketa asko. Edonola ere, lau atal gehituko nizkioke gai honi: pantailak, zaintza, desberdintasun sozialak eta curriculumak.

Pantailen munduak salto bat egin du aurrera. Lehen ere bazegoen horretarako joera, baina hau guztia oso indartsu etorri denez eta badirudienez hezkuntza ere horra doala, gertatzen ari den honek guztiak hausnarketa bat behar du. Batetik, ezin zaizkio ateak itxi. Soziologoak lehenagotik ere ari ginen esaten beste gizarte eta jendarte bat dagoela, “informazioaren gizartean bizi garela”, gizarte post-industrialean, eta badaudela arrisku batzuk (ordu kopuruak, adikzioak, osasunaren aldetik lehen wifia eta orain G5a, abusua..), baina badaudela aukera batzuk ere. COVID-19ak hori azeleratu du eta buelta bat eman

behar zaio gaiari, hor baitaude kontsumo arduratsua, pantailak ikusten ikastea, pantailak ikasteko erabiltzea, alfabetatze digitala, kontrola... Azken hitz hori polita da eztabaidarako: kontrola txarra da ala ona...? Nik uste dut beharrezkoa dela. Badirudi oso pedagogia tradizional kontrolatzailetik gatozela eta beste muturrera joan behar dugula, eta ez. Pantailen kasua adibide ona da: hezitzaileak eta helduek egon behar dute denborak mugatzeko, edukiak mugatzeko, eta noski, kontrol murriztailea baino gehiago kontzientziazioa eta hezkuntza hobea ematea da xedea.

Bigarren puntua zaintzarena da. COVID-19ak erakutsi digu arazo bat geneukala lehen ere eta oso agerian jarri du, gainera. Feminismoa zen erreferentea honetan, esanez: “ei, kontuz, hemen arazo bat daukagu”. Nahikoa izan da eskolak ixtea familia askorentzat arazo bat izateko. Ezin ditugu zaindu gure umeak eta hori ez da oso logikoa; alegia, ezin zaindu ahal izatea gure umeak, adinekoak eta gaixoak. Orain arte Europa hegoaldean familia izan da soluzioa, aitona-amonak. Baina, noski, itxialdi honekin jada ez dago hain argi. Egoera honetan hainbat irtenbide egon daitezke: enpleguan denbora gutxiago pasatzea eta lanaldiak murriztea

gero lan horietarako, zaintzarako eta etxeko lanetarako denbora gehiago edukitzeko. Denok, ez emakumeak bakarrik. Generoa beti gurutzatzen da eta hezkuntzan ere gai hori landu behar dugu. Zaintza horiek publikoki egin behar dira, ez etxeetan soilik eta bakoitzak berea, lan horiek errekonozitu egin behar dira. Gainera, aukerak eman behar zaizkie familiei zaintza kolektiboki antolatzeke—beste instituzioen laguntzarekin ere bai, ez eskolak bakarrik—.

Kapitulua hirugarren atala desberdinatsun sozialei eskainiko nieke. Oraindik oso handiak dira eta hezkuntza ibilbidea baldintzatzen dute. Konfinamenduan egin ziren ikerketa batzuk eta beti ikusten da baliabide gutxiagoko familietan pantaila gehiago ikusten dela, bideo-joko gehiagotan ibiltzen direla eta pantailaren erabilpen ezberdinak gauzatzen direla. Desberdintasunak egon daitezke etxeko dispositibo kopuruaren arabera; ez da gauza bera mugikor batean edo pantaila on batean irakurtzea; konexioaren kalitatea; espazio bat edukitzea etxean; norbait izatea ondoan zu laguntzeko; bertako hizkuntzaren ezagutza; giro ona dagoen etxean eta abar. Orduan, diferentzia sozial horiek —lehen ere hor zeudenak— eta klase sozialak —beti hor

egin direnak eta Soziologian klasiko bat izan direnak — , eragin handia dute hezkuntzan eta COVID-19ak hori bizkortu du. Hizkuntzaren gaia ere aipatu daiteke, hemen euskararen kasua; baliabide gutxi dituztenek deskonexio arrisku handia dutela ikusi da, eta sozializaziorako ezinbesteko tresna bat da hizkuntza gaur eguneko mundu indibidualista eta atomizatu honetan.

Laugarren atala curriculumarena da. Curriculum birpentsatzeko esan zuen ELGak (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) berak, malgutu egin beharko litzatekeela egoera honetan, agian ezagutzei eta alderdi kognitiboei soilik eman beharrean garrantzia, arlo sozialari eta emozionalari gehiago emanaz. Baina, orain, lehenagokora bueltatu garena ikusten dut, alde batetik boterari horrela interesatu zaiolako eta, bestetik, ezagutzen dugunari eusteko joera dugulako, aldatzeak beldurra ematen digulako. Itxialdian konturatu ahal izan genuen sozializazioa zela hezkuntza instituzioek bete ezin zuten funtzio garrantzitsuenetako bat. Ikusi zen, momentu gogorrenetan matematika baino gehiago behar genuela arima elikatzea, historia, pintatu, gorputza mugitu, musika... Baztertuta dauden gauzak azaldu ziren. Baina, orain, erdizka errekuperatu garenean, berriz curriculum ofizialari heldu zaio. Sakoneko joerak dira, inertziak, alferkeriaz edo beldurrez egiten ditugunak. Hori batzuen joera da, beste batzuek, berriz, eraldaketa soziala egiteko momentu egokia orain dela diote. Gainera, ikusi da posible dela: eskolak eguneroko ezinbesteko gauza bat izan behar duela zirudien, eta momentu batean gelditu egin zen, pun! Eta aizu, munduak hor segitu zuen! Eta, gainera, animaliak azaldu ziren, jendea gehiago egon zen familian... Bazituen gauza arriskutsuak baina positiboak ere bai.

Hori guztia kontuan hartuta, batzuek esaten dute COVID-19ak hezkuntza eredu kolokan jarri duela. Zuk baieztape hori egingo al zenuke?
Zentzu batean bai, baina ez nik nahiko nukeen zentzuan. Ez du hezkuntza eredu kolokan jarri zentzu eralda-

tzailean. Kolokan jarri duena zera izan da: aurrez aurrekoaren eztabaida, eskolaren funtzioa, curriculum... Baina beti lehengora bueltatzeko nahi horrekin, edo agian, gainera, modu arriskutsuagoan, batez ere esan ditugun hainbat gaietan: pantaila gehiago, pantaila horiek multinazional estatu-batuarren eskuetan daudelarik; erdizkako bide batean aurrez aurrekoa eta online nahastuz eta nora goazen ez dakigula, curriculum ofiziala zalantzan jarri gabe, zapalkuntza linguistiko kultural nazionalak bigarren tokian utziz... Eredua zalantzan jarri da, baina ez nik nahiko nukeen ildoan edo norabidean. Agian lehenagotik geneuzkan arrisku batzuk azkartu eta handitu ditu Euskal Herrian. Tentsio bat mantendu behar da eta argi eduki helburuak, norabidea. Bestela, beste batzuek oso garbi daukate zer-nolako eredu nahi duten.

Soziologiak zer ekarpen egin dio hezkuntzari edo irakaskuntzari?

Batetik, Soziologiak dio hezkuntza fenomeno soziala dela eta, bestetik, soziologoentzat hezkuntza ez da jendea prestatzea, ez da jendearen talentu indibidualak bilatu eta horiek garatzen laguntzea, baizik eta gizarte batean bizitzeko prestatzea da hezkuntza soziologoentzat. Gainera, talentuak, bokazioak eta gaitasunak bilatzeko garaian ere, faktore sozialak eragin handia dutela azpimarratzen du Soziologiak. Zergatik, adibidez, irakasleen seme-alabek eskola emaitza hobeak dituzte etorkinenak baino? Akademikoki bizkorragoak direlako? Ez. Seguraski gurasoen eskola mailagatik eta etxeko kapital kultural eta ekonomikoagatik izango da. PISAk ere hori onartzen du, maila sozioekonomikoa dela eragin gehien daukan faktorea, eta Jaurlearitzaren diagnostiko frogetan ere ikusten da hori. Bokazioei dagokienean berdin, soziologoek zera esaten dute: zergatik zeuden lehenago gizarte katolikoa-goetan hainbeste apaiz, fraile eta moja eta orain hainbeste ingeniari? Gure ustez, bokazio indibidualak gizarteak proposatzen duenaren araberrakoak direlako, gizartean momentu horretan dagoen behararen araberrakoak. Zergatik dira, adibidez,

“Soziologoentzat hezkuntza ez da jendea prestatzea, ez da jendearen talentu indibidualak bilatu eta horiek garatzen laguntzea, baizik eta gizarte batean bizitzeko prestatzea”

“Gizarte bakoitzak hezkuntza bere helburuak lortzeko erabiltzen du. Uste dut ez genukeela lotsarik izan behar Euskal Herrian abertzale garenok zera esateko: erabili dezagun hezkuntza sistema euskal nazioaren ideia mantenduko duten belaunaldi berriak hezteko”

“Goazen kapitalismoaren elefante handi hori hainbat lekutatik zirikatzen, eta hezkuntza izan liteke leku horietako bat”



femeninoagoak hezkuntza eta osasungintza bezalako ikasketa eremuak? Edo orokorrean esanda, zaintza? Eta maskulinoagoak zientzia eta teknologia? Generoa gurutzatzen delako eta funtsezko faktore sozial bat delako. Orduan, azkenean, Soziologia zera ari da esaten: hezkuntza ez dela naturala, soziala dela, hezkuntza ez dela zerbait gure barrutik ateratzea, baizik eta zerbait sartzea dela. Harria ez dela jotzen ea zer ateratzen zaigun ikusteko, baizik eta guk nahi dugun bezala jotzen dugula eskulturaren guk nahi duguna lortzeko. Beraz, kontuz ibili behar dugu naturalizazioarekin, individualizazioarekin, zeren soziologoentzat hori idealismoan erortzea baita. Azken finean, ez dugu ahaztu behar hezkuntza soziala dela. Gero, jada hurrengo pausoa zera galdetzea izango litzateke: soziala baldin bada, zein gizarte motarako hezi behar dugu? Zein gizarte motarako ari gara hezten? Zein dira hor erronka sozialak?

Gizarte guztietan pertsonak “fabrikatzeko” erabiltzen da hezkuntza. Nola-ko pertsonak ari gara fabrikatzen? Hiru ezaugarritan oinarritutako

pertsonak: zientzia eta teknologia, individualismoa eta lehia, eta kontsumismoa, kapitalismoa.

Gure gizartean, ikusita PISAk zer neurtzen duen, zientzia eta teknologia da lehentasunetako bat, arloei dagokionez. Balioei dagokienez, hezkuntzak individualismoa eta lehia bultzatzen ditu. Nahiz eta diskurtso politiko zuzenetan elkarlana eta taldelana aipatzen diren, azkenean notek balio dute, bai selektibitatean eta bai bekak lortzeko garaian ere. Unibertsitatearen kasuan practicumaren ordena eta gradu amaierako lanen ordena nota individualistikoki dator. Gehiegizko lehia dago eta, horretan ere, aurrera egin beharrean uste dut atzera goazela. Politikoki ere Jose Ignacio Wert Hezkuntza Ministro izandakoak oso argi esan zuen: helburua espainolizatea da. Noski, gizarte kapitalista batean, kapitalismorako ari gara entrenatzen, zapalkuntzak eta alienazioak onartzeko; eta espainiar estatuan jendeak espainartasun hori elikatzen ari dira entrenatzen. Hori galderan aipatutakoarekin lotuta dago: gizarte bakoitzak hezkuntza bere helburuak lortzeko erabiltzen duela. Uste dut ez genukeela lotsarik

izan behar Euskal Herrian abertzale garenok zera esateko: erabili dezagun hezkuntza sistema horri kontra egiteko eta euskal nazioaren ideia mantenduko duten belaunaldi berriak hezteko. Hezkuntza ezin da inoiz neutrala izan. [Emile] Durkheim-ek esaten zuen atzean beti dagoela nazio bat, historia bat, hizkuntza bat, geografia bat, literatura bat... Eta uste dut batzuetan konplexu gehiegirekin ibiltzen garela ustezko neutraltasun baten bila eta egoera bidegabeetan ez dago neutraltasunik. Neutral geratzen bazara, ondorio logiko bat da *status quo*ari eta botereari egiten diozula mesede eta, orokorrean, gizarte kapitalista batean bizi garen honetan, horretarako entrenatzen gaituzte; kontsumismorako, individualismorako, lehiarako...

Interesgarria da 1970eko kritika marxistek kapitalismoari buruz esaten zutena: korrespondentzia zuzena dagoela hezkuntza sistemaren eta lan merkatu kapitalistaren beharren artean. Alde batetik, dominatzaileak eta eliteak behar dituzte eta, beste aldetik, klase dominatuak behar dituzte; eta bakoitzari gauza ezberdinak erakusten zaizkio. Langile klase xumeenari, lanpostu okerrenetan bukatuko dutenei, batez ere sumisioa, onarpena, obediencia eta horrelakoak erakusten zaizkie. Eskola mailan gora goazen neurrian, beste balore batzuk erakusten dira; autonomia, sormena eta hausnarketa. Zergatik? Batetik, horiek autonomia eta sormena behar duten enpleguetan bukatuko dutelako, eta bestetik, behin horra iritsi bazara, suposatzen delako gizarteak jarri dizkizun arauak barneratuta dituzula; diziplina eta gizarte honekin bat etortzea. Korrespondentziaren eta erreproduzioaren teoriak gauza bereetsua esaten zuten: azkenean ez dela berdintasun sozialerako eta justizia sozialerako tresna hezkuntza, baizik eta justu kontrakoa dela: desberdintasun sozialak erreproduzitzeko tresna. Hori ezkututzen digutela eta adi ibili behar dugula diote teoria horiek.

Alderantziz, hezkuntzak nola eralda dezake normaltasuna edo gizartea? Orokorrean uste dut gizarteak badue-
la eragina hezkuntzan eta hezkuntzak

gizartean, baina espero dudana da ez izatea erreproduzio mekaniko bat, beti berdina, eta gizartearen bidez hezkuntza eraldatu ahal izatea. Ez dugu inozoak izan behar eta pentsatu hezkuntzak bakarrik alda dezakeenik mundua. Horren aurrean, diskurtso ofizialak dio eskola eta hezkuntza sistema ona dela eta horra joaten baldin bazara, azkarra baldin bazara, lana egiten baldin baduzu eta aukeraketa onak egiten baldin badituzu, aukerak izango dituzula bizitzan lan on bat edukitzeko, hobetzeko eta sozialki mugitzeko.

Ni, berriz, hirugarren korrante batean kokatzen naiz oraintxe galdetzen didazunaren harira: bai, mundua aldatu dezake hezkuntzak, baina ez berak bakarrik, beste erreforma sozial, politiko eta ekonomikoak behar dira. Marxismo klasiko horrek arrisku bat du: oso estrukturalista dela, ematen du kapitalismoaren barruan bizi garen bitartean ez duela merezi esfortzurik egiteak, ezer egiteak, dena delako erreproduzioa. Nire ustez dena ez da erreproduzioa, dena ez da txuria edo beltza. Badaude zirrikituak, erresistentziarako aukerak.

Hirugarren korrante honen ideia zera izango litzateke: hezkuntza ez dela lan merkaturako soilik prestatzea eta ezin dugula estrukturalismo gelditzaile batean geratu, ezin dugula zain egon ea noiz etorriko den kapitalismoa botatzen duen iraultza. Goazen elefante handi hori hainbat lekutatik zirikatzen, eta hezkuntza izan liteke leku horietako bat. Ideia horren inguruko erreferente asko daude, baina bi aipatuko ditut. Lehen-dabizikoa Paulo Freire. Hark zioen hezkuntzaren funtzio nagusietako bat zapalkuntzen aurreko kontzientziazioa dela, alfabetatze politiko-soziala, bizi garen mundua eta garaia beti kritikoki irakurtzen ikastea. Horretarako, hezitzaileak zapalduekin egon beharko lukeela zioen eta zapalduentzako hezkuntza eta pedagogia egin beharko lukeela. Bigarrenak, Paul Willis-ek, *Lan egiten ikasi* liburuan zera esaten du: langile klaseko ikasleak ez dira konturatu gabe porrot egiten duten ezjakin pasibo batzuk; erresistentzia aktiboa egiten diote eskolari, ez daukatelako esperantzarik

aldaketan. Logikoa da, gainera, gutxi batzuk salbatuko baitira eta, gizartea horrela antolatuta baldin badago, beraien klase sozialean mantenduko baitira gehienak.

Eraldaketa lortu daiteke, beraz, eta ez hezkuntza formalaren bidez bakarrik. Euskal Herrian baditugu beste esperientzia batzuk aisialdian, Katxiporreta adibidez, oso garbi daukatenak euskara, Euskal Herriaren markoa, mundu berri bat, aniztasunaren errespetua... Edo Hik Hasik berak Hezkuntza Proposamena egin zuenean oso garbi zeuzkan baloreak, ingurumen naturalaren errespetua, kultur aniztasuna errespetatzea, osasuna zaintzea, elkartasuna lantzea, kritikotasuna sustatzea, norberak bere burua ezagutzea gero besteekin erlazionatzeko, euskara... Beraz, proposamenak badauzkagu, erreferenteak baditugu (Elbira Zipitria, Uriz Pi ahizpak...).

Zein dira, orduan, hezitzaileen rola gaur egungo gizartean?

Egia da hezitzaile batzuk momentu batzuetan estutu egiten direla gaur egun gizarteak gehiegi eskatzen dielako; langile sozialak izatea, baloreak erakustea, sexualitatea, mundu digitalean adituak izatea... Egia da dena ezin zaiela eskatu, ardura guztia ezin da hezkuntza instituzioaren esku egon, familiek ere ardura handia dute, ziurrenik handiagoa. Esan dugu hezkuntzak bakarrik ezin duela mundua aldatu. Adibidez, oso gizarte klasista eta arrazista baldin bada, hainbeste oztopo jarriz atzerritar legearekin eta paperak lortzeko zailtasunekin... gero ezin da esan "beno, orain etor dadila gizarte-hezitzaile bat eta tailer bat egin dezala".

Bestetik, onartu behar dugu kontzientzia soziala beharrezkoa dela eta konturatu behar dugu, kontzientziate garenean ere, arriskua beti hor dagoela. Adibidez, matematika bezala ustez neutrala den ikasgai batean ere erreproduzitu edo eraldatu daiteke mundua, edo Gorputz Hezkuntza bera oinarritu daiteke lehian edo errendimenduan, edo naturarekin harremanetan gorputzaren osasunean, eta denok ahalik eta gustuen senitzean gure gorputza mugitzen eta ezagutzen... Edo

“Kontuz ibili behar dugu indibidualismo terapeutikoarekin eta asistentzialismo akritikoarekin. Eraldaketa rola behar du kontzientzia soziala eduki, erresistentzia indibidual eta jakin horiek egiturak seinalatzearekin batera joan behar dutelako beti”

“Hezkuntzak egin dezakeena da gehiago kontzientziatu eta informazioa zabaldu. Paulo Freire aipatzean esan dugu: esplikatzen al da eskoletan edo hezkuntza instituzioetan gure garaiko arazo sozial nagusiak zein diren?”

“Informazioa ezagutza bihurtzen da informazio hori gure bizitza eta komunitatearen bizitza hobetzeko erabiltzeko dugunean”



Ingelesean bertan, neutroa dela dirudi, baina guk esaldi bat jartzen baldin badugu, adibidez, “Lucy is crying because she broke up with Michael” (“Lucy dago negarrez Michaelekin harremana hautsi duelako”), berriro ari gara esaten neska dagoela kezkatuta, neska emozionala dela, neskak egiten duela negar... Esaldi horretan “broke up” aditza irakasten ari gara, baina ez hori bakarrik, beti dago ideologia. Hori onartu beharra dago eta gutxienez hori eskatu beharko litzaieke hezitzaileei.

Pedagogiako eta Gizarte Hezkuntzako ikasleei lehen egunean beti galdetzen diet: “Zergatik zaudete hemen?”. Eta gehienek erantzuten dute: “Jendeari laguntzeko”. Esaten diedana da kontuz ibili behar dugula indibidualismo terapeutikoarekin eta asistentzialismo akritikoarekin. Eraldaketa rola behar du kontzientzia soziala eduki, erresistentzia indibidual eta konkretu horiek egiturak seinaltzearekin batera joan behar dutelako beti, “ez iezazkidazu sortu behin eta berriz arazo sozial hauek (langabezia, pobrezia, bazterketa soziala, matxismoa, klasismoa, arrazismoa, menpekotasunak...) eta gero niri

deitu adabakiak jartzeko eta sistema perfektionatzeko”.

Gaur egun gure garaiko arazo sozial nagusiak zein diren ikusita, horren aurrean zer egin dezake hezkuntzak?

Hasteko eta behin orain egiten ez duguna: gehiago kontzientziatu eta informazioa zabaldu. Lehen Freire aipatzean esan dugu: esplikatzeko al da eskoletan edo hezkuntza instituzioetan gure garaiko arazo sozial nagusiak zein diren? Adibidez, esplikatzeko al dira munduko desberdintasun sozialak? Euskal Herriak Marokok baino hamar aldiz erosteko gaitasun handiagoa daukala batez beste? Edo Mauritaniak baino hogeitaz aldiz altuagoa? Eta hori bidegabekoa dela? Soilik jaiotako lekuaren arabera dela eta ez azkarragoak edo langileagoak garelako? Eta horrekin lotuta daudela gero dauzkagun erronkak, adibidez migrazioekin? Hori esplikatzeko al da? Ziurrenik ez. Eta ez Maroko eta Mauritaniarekin bakarrik, esplikatzeko al da diraren, Euskal Herrian bertan, dauden desberdintasun sozialak eta horrek sortzen dituen diferentziak gure bizitza aukeretan? Datuekin erakusten al da ala ezkutatu egiten da?

Esplikatzeko al da ekologiarekin daukagun arazoa eta, kasu jakin honetan, baliabide gehiegi xahutzen ari garela? Eta horietako batzuk bukatu egingo direla? Eta hondakin gehiegi sortzen dugula? Eta gehiegi kutsatzen dugula? Hori garbi esaten al da? Eta Euskal Herrian bertan kontsentsurik ez duten proiektu batzuk, ezin direnak aipatu garbi hezkuntza instituzioetan, baina, nire ustez, aipatu beharko lirakeenak? AHTa, errausgailua... Hori erakusten al da garbi? Gure bizitza estiloa zalantzan jarri beharra dago, ezin dugulako 7.000 milioi pertsonak bizi oraingo kontsumo gizartean bizi garen bezala. Eta horren aurrean zer? Bada busti, erakutsi trantsizio sozio-ekologiko bat beharrezkoa dela. Espainian badaude jada horretan erreferenteak direnak —esate baterako FUHEM—, zeinak horrelako kontzientziazio ariketak egiten dituen.

Beste galdera bat izango litzateke genero ezberdintasunaren aurrean zer egin dezakeen gizarte moderno edo postmoderno honek, sortzen dituen identitate arazoaren aurrean, depresioen, antsietate eta abarren aurrean zer egin daitekeen.

Egia esan, ez da erraza aldaketa sozialaren eta hezkuntzaren arteko harremana baloratzea edo nola egin beharko genukeen esatea. Batetik, egia da ezin duzula oso atzean gelditu, baina, bestetik, ezin dugu eraldaketa sozialaren erabateko menpekotasun izan. Erraza ez den oreka bat bilatu behar da. Aldaketa soziala gero eta globalagoa da. Gure gizartea informazioaren gizartea da, baina Soziologiatik esaten dena da, Soziologia kritikotik batez ere, kontuz ibiltzeko, informazioa eta ezagutza ez direlako gauza bera. Informazioa ezagutza bihurtzeko, informazioa aukeratzeko eta prozesatzeko ikasi behar dugu... Eta hor ere desberdintasun sozialak daude. Informazioa ezagutza bihurtzen da informazio hori gure bizitza eta komunitatearen bizitza hobetzeko erabiltzen dugunean. Lehendik hezkuntza bat duenak baliabide berriak aprobetxatuko ditu, baina gainerakoentzat informazioaren gizartea ez da ezagutzaren gizartea, entrenimendua soilik da, edo ikuskizunaren gizartea, edo intoxikazioaren

gizartea... Hemen ere hezitzaileak garrantzitsuak dira.

Mundu digital honek sortzen dizkigu beste erronka batzuk: entretenimendu gehiegi daukagu eta arreta mantentzeko zailtasunak daude. Zer egin dezake hezkuntzak kasu horretan? Agian offline denbora gehiago behar dugula esan dezake, eta kontsumo arduratsua behar dugula. Edo memoriari buruzko eztabaidak bultzatu ditzake. Ikasleek gero eta gehiago esaten didate “arraioa, ez du ezertarako balio”, selektibitatearen trauma daukatelako, erabat azterketetan oinarritutako hezkuntza batetik datozelako. Eta egia da, baina bestetik, memoria ere behar dugu, ezin dugu beti zerotik hasi. Google ez da nahikoa.

Hezkuntzaren beste zeregin bat gizarte likidoari lotutakoa izan daiteke. [Zygmunt] Baumanek esaten duen bezala, gizarte likidoa da eta hezkuntza ere bai, azkarra, hutsala, behin-behinekoa, eta horren aurrean soziologo kritikoek defendatzen dute hezkuntzak bere zentzu moral, etikoa eta politikoa erreperatu behar duela.

Hezkuntzaren oinarrian pedagogia, didaktika edo psikologiaren gain, eta zientziez gain, Soziologiak ere bere lekua beharko lukeela diozu. Hezkuntzak ez al dio nahikoa begiratzen gizarteari?

Bai, begiratzen dio, baina gizarte jakin bati. PISA oso ondo ikusten da zer baloratzen den: zientzia, teknologia eta hizkuntzak. Noski begiratzen diola, baina jarraitzen dugu pentsatzen hezkuntza eskola bakarrik dela eta ez dugu ikusten beste hezkuntza instituzio batzuk hor daudela: gizarte-hezkuntzan eta pedagogian orientazioan egiten den lana; behar bereziak dituztenekin egiten dena; tutoretza publikoko umekin egiten dena; aisialdian; animazio soziokulturalan; dinamizazio komunitarioan; interkulturalitatean egin daitekeen lana; genero desberdintasunekin egiten den lana... Gai pila bat daude lantzeko. Gainera, pentsatzen dugu hezkuntzako profesional bakarrak irakasleak garela, eta ez, oraintxe esan dugu beste eragile pila bat daudela. Eskolak bakarrik

hezten duela pentsatzen jarraitzen dugu, eta ez, ikuspegi soziologiko batetik oso garrantzitsuak dira beste eragile batzuk: familiak, pantailak, lagun taldeak eta bestelako taldeak...

Hezkuntza gizarteari begira dago, baina leku jakin batera, gizarte jakin bati. Ikuspegi hori zabaldu eta garbi eduki behar dugu zein gizarte mota nahi dugun. Ikuspegi soziologiko batetik lehenengo galdera beti hauxe izango litzateke: zein gizarte nahi dugu? Helburu hori argi dugunean, hezkuntza hara bideratu, hara joateko hezkuntza diseinatu. Beti dago atzean gizarte eredu bat, baita esplizituki esaten ez denean ere. Orain ere ez zaigu garbi erakusten hori eta badirudi hezkuntza neutrala eta teknologikoa dela, eta ez, atzean gizarte proiektu oso bat dago. Kasu honetan gizarte kapitalista, neoliberal, zientifikoa, teknologikoa, industrial... Eta gu esaten ari gara agian hori zalantzan jarri behar dela.

Eta zein da nahi duguna? Erantzunak baditugu hainbeste galderen artean?

Bada, negoziatu egin beharko dugu. Eta bai, noski, erantzunak badaude, batzuk behintzat bai. Orain egin beharko duguna da konbentzitu gehiago bat gizarte hori nahi dugula. Adibidez: bidegabea baldin bada jaioz zaren hanka tartean zentimetro bat gehiago edukitzeagatik bizitza aukera hobek eta gehiago edukitzea, horren kontra borrokatu behar da. Talde etnikoak baldintzatzen badu zure bizitza zentzu txar batean, eta adibidez, kasu honetan talde etnikoa euskalduna baldin bada, bidegabea da ezin bizi izatea gure hizkuntzan. Orduan, horren kontra borrokatu behar da eta hezkuntzak hor egon beharko du. Mundua hain egoera arriskutsuan baldin badago ekologiarri begiratuta eta egia baldin bada berotzeak eta biodibertsitatearen galerak egongo direla, laster kolapsora joan gaitzkeela energia iturriak bukatzen ari direlako eta gizarte eredu aldatsen ez bada eta trantsizio egiten ez bada... Harrantz joan beharko da, gizarte ekologikoago baterantz. Demokrazia, justizia soziala, berdintasuna eta horizontaltasun gehiago nahi baldin baditugu,arrantz joan behar da, gutxi gorabehera oinarriak badauzkagu.

“Baumanek esaten duen bezala gizarte likidoa da eta hezkuntza ere bai, azkarra, hutsala, behin-behinekoa, eta horren aurrean soziologo kritikoek defendatzen dute hezkuntzak bere zentzu moral, etikoa eta politikoa erreperatu behar duela”

“Eskolak bakarrik hezten duela pentsatzen jarraitzen dugu, eta ez, ikuspegi soziologiko batetik oso garrantzitsuak dira beste eragile batzuk: familiak, pantailak, lagun taldeak eta bestelako taldeak...”

“Demokrazia, justizia soziala, berdintasuna eta horizontaltasun gehiago nahi baldin baditugu,arrantz joan behar da, gutxi gorabehera oinarriak badauzkagu”

ESPERIENTZIAK

HIK HASIREN HARPIDEAK

“Hik Hasikide izatea euskal hezkuntza komunitateko kide izatea da”

Funtsezkoak dira etxe baten zimenduak etxea eroriko ez bada; oinarri sendoko etxeek urteetako iraupena izan ohi dute. Ongi finkatutako zutabeek teilatuari ederki eusten diote, eta horma sendoek ere haizeteei aurre egiten diete. Etxea sustengatzen duten elementuak ezinbestekoak dira, eta **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoaren kasuan harpideak izan dira, dira eta izango dira habe-harri. Eskerrik asko eta zorionak!

Hik Hasiren 25. urteurrena ospatzen ari gara ikasturte honetan eta aitzakia horrekin atzera eta aurrera begiratzen. Urte hauetan zehar egindako ibilbidearen aztarnak hor daude, eta aurrera begira arrastoa uzten jarraitzeko asmoa ere bai. Hasierako bidezidorra zabalduz joan da eta sasiak hartu gabe txukun mantendu da oinatz isil baina sendoak pausatu direlako bertan: harpideenak. **Hik Hasiren** ibilbidean zimendu, oinarri, zutabe, sustengu izan dira harpideak, egitasmo pedagogikoari bultzada eman diotelako euren ekarpenekin, iritziekin, ametsekin, artikuluekin, di-ruarekin, proposamenekin... Hasieratik eskertu du **Hik Hasik** konpromiso hori, eta lerrook harpideei esker ona emateko baliatu nahi dira.

Batzuek hasiera-hasieratik egin zuten bat **Hik Hasiren** egitasmoarekin, beste batzuek geroago, eta beste batzuek etorkizunean batuko dira. Urterik urte asko dira irakasle lanetan hasi eta lehen lan kontratuarekin batera euren buruei **Hik Hasiren** harpidetza oparitzen diotenak, komunitateko kide izateko.



Hik Hasiko harpide baino gehiago **Hik Hasikide** izatera iritsi dira denak, hezkuntza erdigunean jartzen duen komunitatea osatzera. Samurragoa da hori elkarrekin egitea, eta horixe da **Hik Hasiren** aterkipean —aldizkariekin, topaketekin, bidaia pedagogikoekin, formazioekin... — harpideek jasotzen dutena: elkarren berri izatea, elkarrekin topo egitea, partekatzea, elkar ezagutzea, ulertzea, elkarrekin amestea, eta komunitate bereko partaide sentitzea.

Idoia Sara Haur Hezkuntzako irakasleak eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuan Prestakuntzaren atalburu denak argi esaten digu zergatik erabaki zuen **Hik Hasikide** izatea: “Lehenik eta behin, aldizkari euskalduna delako eta gure errealitate hurbila aintzat hartzen duelako. Bestetik, bertan irudikatzen den haurraren irudia partekatzen dudalako, garaikideak diren hezkuntza/hazkuntza tendentziak ere bilduz”.

Eider Palmou Bilboko Urretxin-

dorra ikastolako Haur Hezkuntzako koordinatzailearentzat topaleku eta eragile garrantzitsua da **Hik Hasi** eta horregatik egin zen harpide: “Hezkuntzan gertatzen denaren inguruan informatua egoteko, niretzat ezinbesteko erreferentzia eta eragile da **Hik Hasi** aldizkaria. Euskal hezkuntza komunitateko kide sentiarazten nau **Hik Hasik**, niretzat **Hik Hasikide** izatea euskal hezkuntza komunitateko kidea izatea da. Ni, horregatik egin nintzen harpidedun”.

Marta Gomez Erandioko Altzaga haur eskolako koordinatzailea “hezkuntzaren inguruan aldizkari euskaldun eta erreferente bat delako” egin zen **Hik Hasiko** harpide. “Aldi berean, oso garrantzitsua iruditu zitzaidan **Hazi Hezi** aldizkaria argitaratzea 0-3 zikloan zegoen hutsunea betetzen zuelako eta haren harpide ere egin nintzen”.

Maialen Etxart Salaberri Donamartiriko Arberoa ikastolako irakaslearentzat “**Hik Hasi** egitasmoa altxor bat da. Berritzailea eta inspiratzailea izateaz gain, anitza da, gogoeta gaiak, esperientzia partekatzeak, ikastaldi eskaintzak... denetarik dago. Eta nola ez azpimarratu, euskaraldi garai honetan, osoki euskaraz pentsatua eta sortua dela, hezitzaile euskaldun guztien plazererako!”.

Jakintza partekatzen

Gasteizko Ibaiondo ikastetxeko Lehen Hezkuntzako irakasle Josean Gil-Garciak honela dio: “**Hik Hasikide** izateak nire kezka pedagogikoak hezkuntzaz arduratuta dauden beste **Hik Hasikide** batzuekin partekatzeko aukera eman dit”.

Sarak ere jakintza partekatzeko ematen duen aukera azpimarratzen du: “Aldizkariarekin lotuta, gainera, bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit antolatzen diren jardunaldiak eta bidaia pedagogikoak; besteak beste, bertatik bertara eta Euskal Herriatik mundura gure esperientziak eta jakintza partekatzeko aukera paregabea ematen dutelako”. Ildo berean mintzo da Palmou: “Bai pedagogia mailan eta baita Euskal Herriari begira ere, ikuspuntu interesgarria dauka **Hik Hasik**. Irakasle bezala asko ikasi dut aldizkariaren bidez hezkuntzaren be-



rrikuntzaz, haurtzaroaren kulturaz... eta ikastetxeko praktikari ekarpen handia egin dio irakurritako horrek guztiak, eta gainera, oso garrantzitsua izan da Euskal Herriko sare guztiatako —bai Ipar eta bai Hego— eta baita kanpoko aditu eta irakasleen berri jasotzeko ere”.

Ados dago horrekin Gomez: “Personalki zein profesionalki aberasten zaituzten esperientzia berriak edo lan egiteko era ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dit”.

Gil-Garciak dio berari **Hik Hasik** arnasa eman diola: “Finlandiara antolatutako bidaia pedagogikora joan nintzen eta han beste eredu batzuk ikusteak, ohikotik atera eta beste egiteko modu batzuk daudela ikusteak, arnasa eman zidan. Eta geroztik, **Hik Hasiren** bidaia pedagogiko gehiagotara joan izan naiz. Ikasteko aukera ematen duten lekuetara joatea ahalbidetu dit **Hik Hasik**”.

Hik Hasi komunitateko kide izateari balio erantsia ematen dio Sarak, beste kideen artean gustura eta eroso sentitzen delako: “Baloratzen dut baita ere aldizkari independentea dela, hezkuntzarekin lotuta dauden pertsonen osatuta”.

Etxartek pasioa aipatzen du: “Gehien gustatzen zaidana, **Hik Hasin** sendi dudana hezkuntzaren pasioa da, Joxe Mari Auzmendi bere sortzailearena. Eskerrak eman nahi dizkizuet, euskal hezkuntza sistema eraikitze bidean, egitasmo hori bizirik atxikitzen eta garatzen duzuen guziet. Bihotzetik”.

Antzekoa erraten dute Ainhoa eta Nekane Astiz irakasle nafarrek:

“Etxetik jaso dugu hezkuntzarekiko pasioa eta baita **Hik Hasirekiko** maitasuna ere, ama hezitzailea baitugu. Irakasle lanetan hasi eta berehala batu gara gu ere **Hik Hasi** komunitatera, hezkuntzako lan exigenteak etengabeko formazioa eskatzen baitu eta formatzen jarraitzeko bidea da aldizkaria hileroko etxean jasotzea eta **Hik Hasik** antolatutako ikastaroetan eta bidaia pedagogikoetan parte hartzea. Hezkuntza eta irakasleena hobetzeko oso garrantzitsua da Euskal Herrian eta kanpoan egiten denaren berri izatea, eta baita sare-tzea ere, eta horretarako beharrezkoa da gure etxean **Hik Hasi**”.

"Osoki euskaraz pentsatua eta sortu da, hezitzaile guztien plazererako"

Maialen Etxart
Donamartiriko Arberoa
ikastolako irakaslea

"Baloratzen dut baita ere aldizkari independentea dela, hezkuntzarekin lotuta dauden pertsonen osatuta"

Idoia Sara
Haur Hezkuntzako irakaslea eta
Nafarroako Hezkuntza Departamentuan
Prestakuntzaren atalburua

EKARPENAK 1

PSIKOMOTRIZITATE-GELAK SEGURTASUNEZ IREKITZEKO IRIZPIDEAK

COVID-19a: psikomotrizitate-gelak irekiko ditugu eskoletan?

Galdera ez da irekitzea edo ez irekitzea, baizik eta nola ireki behar diren. Hori diote Luzaro Psikomotrizitate Eskolako kideek. Urte luzez psimotrizitateko saioak eta formazioa ematen ari diren adituon gogoetak, argudioak eta prebentzio-neurriak jasotzen dira lerrootan, hainbat eskolatako psimotrizitate-geletarako baliagarri izan daitezkeenak.

Ziurgabetasun-egoera orokor batean gaude. Bizitza pribatuaren eta sozialaren esparru guztietan ditugu galderak, emozioak eta sentimenduak. Ez da erraza lasaitasunez pentsatzea, erabaki zuhurrak hartzeko aukera eman-go diguten gogoeta lasaiak egitea, gehiegizko beldurrean eta gehiegizko haserrean oinarritu gabe.

Luzaro Psikomotrizitate Eskolan (ASEFOP), orientazio-eskaera asko jaso ditugu garai nahasi haue-tan, haurren mundua zaintzeko eta babesteko moduz arduratzen diren profesionalen aldetik. Galdetu digute ea ireki ala ez, nola ireki, nola joan psikomotrizitate-geletara segurtasun nahikoarekin. Lehenik eta behin, hezkuntzan eta terapiari psikomotri-zista gisa lan egiten dutenen jarrera eta ahalegina baloratu nahi ditugu, mugetatik eta debekuetatik harago joan nahi baitute, haurren beharrak eta osasun globala nola zaindu jakiteko (ezin dira haurren osasun fisikoa eta psikoafektiboa isolatu, bizitzako lehen urteetako globaltasunaren

LUZARO
psikomotrizitate eskola

LUZARO PSIMOTRIZITATE ESKOLA

funtsa horixe baita: elkarrekintza eta erlazio iraunkorra daude alderdi horien guztien artean). Luzaroko taldean gai horri buruzko emozioak, sentimenduak eta analisiak trukatu ditugu, eta erabaki dugu dokumentu hau egitea, haurren mundua zain-tzeko egin dezakegun ekarpen gisa, erantzukizunetik eta profesionaltasu-netik abiatuta. Egoera bitxi honetan murgilduta dauden pertsona guztiak bezala, zailtasunak eta mugimendu

emozional biziak ari gara bizitzen, eta, horregatik, sentimendu horiek taldean partekatu ditugu lehenik, eta gogoetak eta testuak landu ditugu, gure beldurrei, desirrei, haserreari eta abarri hitza emateko.

Deskarga emozional horren ondoren, dokumentu hau egin dugu, eta espero dugu eraikitzailea izango dela, segurtasun eta desira handiagoz aurrera egiten laguntzeko.

Gogoetak eta argudioak

“Ezer adostu baino lehen, garbi utzi nahi dugu haurrei ezin zaiela kontaktua izatea debekatu ez eta gauzak ukitzeko aukera, printzipioz, kendu. Edonola ere, osasun-egoera kontuan hartuta printzipio gisa, haurren taldeak ez nahastea edo beste taldeekin ez elkartzea lehenesten da, eta talde bakoitzak erabiliko dituen espazio fisikoak (kanpokoak eta barnekoak) identifikatuta eta esleituta izatea. (...)

Zirkulazio hitzak eskola barruan zein kanpoan egingo diren mugimenduari egiten dio erreferentzia. Arestian aipatu bezala, haurrei

haien arteko kontaktu fisikoa izatea debekatzea ezinezkoa da. Hala ere, ezinbestekoa da hezitzaileak hurrekin batera beharrezko higiene-neurriak lantzea eta praktikan ipintzea, errutina gisa barneratu arte. Gainera, haurraren garapenean funtsezkoak diren aspektuak (nork bere gorputza ezagutzea, jolasa, mugimendua eta esperimentazioa) besteekin elkarrekin eta elkarreraginean garatzen dira, eta hori bermatu egin behar da, Haur Hezkuntzaren muina delako”.

Hitz horiek ez dira gureak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarenak baizik (*Haur-hezkuntzako etapa, 2020-2021 ikasturte hasierako orientazioak* dokumentuan).

Ez dago gehiago gehitu beharrik. Haurren mundua bere osotasunean babestea da helburua, hain zuzen ere, haurren esku espazioak eta profesionalak jarri nahi dira, jaso ditzaketan gehiegizko tentsioei eta emozioei aurre egiteko balioko dieten hainbat baliabide eskuratzea bermatuko dutenak. Horixe aurkitzen dute psikomotrizitate-geletan, modu pribilegiatuan: ekintza, mugimendua eta jolasa, segurtasunez eta atseginez; jarduteko plazera, plazer partekatua, bere buruarekin, besteekin eta errealtatearekin.

Beharrezkoa da azalpen bat ematea: Eusko Jaurlaritzaren dokumentuan esaten da ez dela espazio bera erabili behar egun berean talde bat baino gehiago aritzeko, eta hori aldatu daiteke, horretarako aukera ematen duten desinfekzio- eta aireztapen-sistemak badaudelako (are gehiago ustez seguruak diren neurriei erreparatzen badiegu, eta kontuan hartuta beste eremu batzuetan haurrena baino arrisku handiagoko populazioekin erabiltzen direla). Gure ustez, hurrengo ataleko prebentzio-baliabideak kontuan hartu eta erabili behar dira, ahalik eta segurtasun handienarekin joateko psikomotrizitate-geletara (eta beste edozein lekutara); bai eta egun berean gela bera erabiltzeko aukera ematen duten produktu eta aparatuek ere, hurrek beren eguneroko bizitzako beste espazio batzuetan aurkitzen dutena baino askoz ere segurtasun handiagoa hartuta horrela.

Prebentzio-neurriak

1. Hurrekin bizi diren pertsona helduek haurrak berme nahikoarekin bidaltzea eskolara, ezarritako osasun-irizpideak errespetatuta.
2. Aurreko irizpide bera ikas-tetxeetan lan egiten duten profesionalentzat eta, jakina, psikomotrizistentzat. Aurrekoa behar bezala zainduta badago, badakigu 9 urtetik beherako haurren transmisio-arriskua oso txikia dela. Gainera, une honetan egiaztatu dugu eskolatzearekin ez dela kutsadura-igoerarik gertatu.
3. Gela ahalik eta gehien aireztatu behar da, aireztapenak birusa ezabatzea errazten baitu.
4. Gela hainbat sistema erabiliz desinfekta daiteke.

Desinfektatzeko sistemak eta produktuak:

Espainiako Osasun Ministerioak aldizka eguneratzen duen biruziden zerrenda argitaratu du (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/salud-Publica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Listado_virucidas.pdf).

Psikomotrizitate-geletan probatu diren produktuen adibideren bat jarriko dizuegu.

Produktuak:

- OX VIRIN; Mikro MK300 desinf. hidroalcohol; Deskol, erref. 510064 (www.juper.net); etab.

Eta azkar lehortzeko aparatuek:

- Matabi IK-9 lainoztagailua (erref. 522008) (www.juper.net); ULV Fogger atomizagailu elektrikoa; etab.

Eta amaitzeko, Psikomotrizitate Elkarte Profesionalak 2020ko ekainean argitaratutako komunikatu bateko testua aipatuko dugu, erabat ados baikaude: “Badakigu zein beharrezkoa den psikomotrizitatea beti, eta are gehiago orain, aldaketa sozialen eta eskoletako baldintza berrien aurrean. Ikusgarri eta beharrezko egin dezagun psikomotrizitatea, parteka ditzagun proposamenak eta esperientziak, diziplina horren bikaintasunak erakusteko. Diziplina horrek adierazkortasun globala jasotzen du, eta txikienek sentimenduak eta emozioak landu, adierazi eta bideratu ahal izatea ahalbidetzen du; salbuespen-egoera honetan, askotariko emozioak azaleratu baitira eta hala jarraituko baitute denbora batez”.

Egun berean gela bera erabiltzeko aukera ematen duten produktu eta aparatuek badaude, segurtasuna bermatzen dutenak.



EKARPENAK 2

KONTAKIZUN MOTORRAK ETA INKLUSIOA

Ipuin motorrak, aniztasuna eta inklusioa lantzeko

Eskola inklusiboaren alde lan egiteko, erreminta eta tresna ugari erabili daitezke, eta artikulu honetan baliabide horietako bat aletzen da: ipuin edo kontakizun motorrak. Ipuin abestuaren eta antzeztuaren arteko kontakizunak dira, ipuin jolastuak, alegia, eta baliabide oso egokiak dira ikaslearen garapen osoa bermatzeko eta haurren heziketa integralerako.



NAROA FERNANDEZ
Lehen Hezkuntzako irakaslea

Pujolàsen (2009) esanetan, aniztasuna beharrezkoa da ikasleak hezteko eta elkarrekin harremanetan egoteko. Horrela, ikasleek elkarrengandik ikasteko aukera izango dute, trukatzen den askotariko informazioari esker —iritziak, pentsamenduak, jakintzak...—. Hori lortzeko, eskola inklusiboaren alde egitea funtsezko ardatza dela iruditzen zaigu. Ikasleek ikaskide guztiak ezaugarri guztiekin

onartu eta balioetsi ditzaten, inolako bazterketarik egin gabe. Guztiak partaide direlarik, eta aukera berdina eskainiz. Guztien beharrei erantzuten saiatuz, inor baztertu eta diskriminatu gabe.

Tierrak (2001) dioenaren ildotik, gure saioetan ikasle guztien partehartzea bultzatzen saiatu behar dugu, aniztasunari erantzun badiogu. Ikasleak haien ezaugarriak kontuan izanik hezten saiatu behar dugu. Une

bakoitzaren arabera egokienak iruditzen zaizkigun estrategiez baliatuz eta bakoitzaren behar eta gaitasunei erreparatuz, horrela, saioetan partaide senti daitezten, gainerakoekin batera.

Muntanerrek (2000) esaten duenez, aniztasunari erantzuteko beharrezkoa da guztiontzako eskola inklusiboaren garrantzia azpimarratzea. Horretarako, hark dioenaren ildotik, bereizketak egiten dituzten eskolak alde batera utzi behar dira, eta irakasleek guztien beharrei eremu berean erantzun, nahiz eta toki askotan oraindik nahiko utopikoa den. Utopikoa izatearen arrazoietakoa bat da ikastetxe askotan ikasle bakoitzaren ezaugarriari behar bezala erantzuteko gaitasunik ez dagoela. Saioetan aniztasunari erantzuteko egiten dituzten egokitzapen urrien ondorio da hori.

Ondo dakigunez, kalitatezko hezkuntza bermatzeko, berebiziko garrantzia du ikasgelan lantzen den metodologia egokia izateak. Tonucik (2010) dioenaren ildotik, ikaslearen gaitasunetan oinarritzeak baldintzatuko du metodologiaren arrakasta. Ipuin edo kontakizun motorrak inklusioaren adierazgarri nagusiak direla ikusteko aukera izango dugu hurrengo lerroetan.

Bizkarraren (2008) esanetan, ipuin motorrak jolasaren bidez garatzen diren ipuin kontatuak dira, pentsamenduaren eraikitzaile bihurtzen direnak. Horrez gain, ikaslea kontaktzen ari

den ipuinaren bitartekari, protagonista nagusi eta antzezle bihurtzen da. Ikasleak beraien garapenaren protagonistak bilakatzen dira horrela. Haurrak ikaste-prozesuan protagonista bilakatzeak motibazioan positiboki eragiten baitu.

Gainera, Bizkarrak dio ipuinaren sinbologia erabilia hainbat interpretazio bultzatzen direla. Hori guztia ipuinetik ateratzen den irudi sortzaileari esker gertatu ohi da. Kontakizun motorra ipuin abestuen eta ipuin antzeztuen arteko har daiteke, jolasaren bidez kontatutako ipuintzat (ipuinaren bitartez jolastu), alegia. Ipuin motorren esentzia mugimenduan datza eta haurren heziketa integralerako erabiltzen da.

Perez, Martinez eta Fernandez (2010) egileek diotenaren ildotik, ipuin motorren helburu nagusia da haurra protagonista bilakatzea, kontakizunaren jabe izatea. Horri esker, haurren jokabide kognitiboa, afektiboa, soziala eta motorra garatuko dira, kontuan hartuz haur guztien garapena lortu nahi dela, aniztasunari erreparatuz eta inklusiorantz bidea eginez. Beraz, ipuin motorren metodologiak ikaslearen garapen integrala bermatzen du, eta, horrela, helburu nagusia bermatzen du.

Hala ere, Bettelheimen (1995) esanetan, kontakizun motorrak baliabide pedagogiko egokiak izateko, beharrezkoa da ikaslearen arreta mantentzea, jakingura piztea, dibertitzea. Bestalde, mugimendura bideratu beharko dugu haurra, esperientzia partikularra bizi dezan eta arreta ekintza motorretan jar dezan. Fröbelek (1929) dio ekintzetatik eta bizipenetatik ikasten dugula. Beraz, ipuin horien bitartez, haurrak aukera izango du bizipenetatik ikasteko. Gainera, Serrabonak (2006) hauxe dio: “Zenbait haurren kasuan, bide bakarra da ipuinek izan dezaten guk nahi dugun eragin positiboa”.

Metodologia horrek izaera kooperatiboa du, eta norberaren kontzeptu positiboan eragin dezake, gizar-te-abilezien garapenean, lagunen onarpenean eta baita berdinen arteko komunikazioan ere. Ruizek (2008, Velazquez 2004tik jaso) dio adin txikienerako ikasleek egoera kooperati-



boetan parte-hartzeak balio dezakeela une ebolutibo horretan dagoen berezko egoztrismoa gaunditzeko.

Izan ere, metodologia horretan oinarritutako saioak produktiboak izateko, Martinezek (2007) dio hainbat irizpide metodologiko kontuan hartu behar direla. Esate baterako, irakasleak ipuina ezagutu behar du, aurretik landuta izan behar du, eta modu sinplean eta ulergarrian kontatu behar du. Horrek istorioan guztiz sartzen lagunduko dio irakasleari, istorioa sentitzen eta bizitzen.

Azaldutako irizpide metodologikoe-kin loturik, Ruizek (2008) kontuan hartu beharreko beste alderdi bat ere gehitzen du: materialen antolaketa egokia, bai eta espazio aproposen aukeraketa ere. Ruizek azpimarratzen du ipuin motorrak aproposak direla diziplinartekotasuna bermatzeko, globalizazio pertsonaletik hezteko, sormenaren garapena estimulatzeko, ikaslearen motrizitatea garatzeko, askotariko jokoak zein ariketak integratzeko eta baita hain garrantzitsua den jarrera kooperatiboa sustatzeko ere.

Azaldu bezala, diziplinartekotasuna bermatzen duela kontuan izanik eta, betiere, ikaslea ardatz izanik, inklusiorako bidea zabaltzen duen metodologia dela esan dezakegu. Beraz, kontakizun motorrek garrantzi handia izango dute metodologia inklusibo horren garapenean zein lorpenean.

Ipuin motorrak aniztasunari erantzuteko metodologia aproposa direla diote Vargasek eta Carrascok (2006). Izan ere, metodologia horrek aukera ematen die haurrei aurretik pentsatuta ez zegoen zerbaiten inguruan hitz egiteko. Bakoitzaren ikuspuntua errespetatuz eta bakoitzak esan nahi duena esanez, denek hitzak esanguratsu bihurtzen dira. Hala ere, irakasleak beti izan behar du kontrolpean egoera, eta erabilera pedagogiko baterantz bideratu behar du.

Hasieran azaldu bezala, ipuin edo kontakizun motorrak jolasaren bidez kontatutako ipuinak dira, eta pentsamenduaren eraikitzaile bihurtzen dira. Haurren ikaste-prozesua ahalik eta integralena izan dadin, Vargasek eta Carrascok (2006) aipatzen

Ipuin motorrak jolasaren bidez garatzen diren ipuin kontatuak dira. Ipuin motorren esentzia mugimenduan datza, eta haurren heziketa integralerako erabiltzen da.

EKARPENAK 2: KONTAKIZUN MOTORRAK ETA INKLUSIOA

Ipuinak tresna baliagarriak dira haurraren irudimena indartzeko. Umeez hainbat interpretazio egin ditzakete ipuinaren aurrean, eta protagonista bilakatzen dira. Gainera, ipuinek ezagutzen, sinesmenen, ohituren... transmisioa egiteko balio dute.

dituzten hainbat alderdi hartzen dira kontuan, hala nola tratamendu intelektuala, afektiboa, soziala, morala eta fisikoa. Gainera, alderdi horien eraginkortasuna helburu edota gaitasun hauetan zentratzen da:

- Nork bere gorputza ezagutzea eta dituen ekintza-aukerak ikustea.
- Elkarren artean harremanak ezartzea, adierazteko eta ko-

munikatze hainbat moduren bitartez.

- Norbanakoaren testuinguru naturala, familiarra zein soziala behatzea eta esploratzea.
- Autonomia garatzen joatea.

Ipuinean, mugimendu eta gaitasun horiek garatzea da protagonismo handien hartzen duen alderdia, eta jolasaren bitartez lor daitezke. Conde de Cavedak (1994) hauxe jasotzen du: "Ipuin motorrek esku-hartze pedagogiko eraginkorra errazten dute; istorio kontatuak eta parte-hartzaileak direnez, dibertigarriak izateaz gain, baliabide egokiena dira hezkuntza-zeregina betetzeko." Izan ere, zenbait estrategia zuzentzailek eragin negatiboa izan dezakete haurraren interesean. Hau da, haurrari interesatzen ez zaiona alde batera uztea ekar dezake horrek.

Ipuin motorrak zuzenean eragingo du hizkuntzaren alorrean, eta ikaskuntzaren funtsezko helburua da hori. Jakin badakigu haur-literaturak duen garrantzia haur baten lehenengo urteetan. Izan ere, ipuinak tresna baliagarriak dira haurraren irudimena indartzeko. Umeez hainbat interpretazio egin ditzakete ipuinaren aurrean, eta protagonista bilakatzen dira. Gainera, ipuinek ezagutzen, sinesmenen, ohituren... transmisioa egiteko balio dute.

Hurrengo lerroetan, ipuin motorren ezaugarriak zein diren irakurtzeko aukera izango dugu. Metodologia horrek hainbat ezaugarri ditu, eta kontuan hartu beharrekoak dira.

Ipuin edo kontakizun motorren ezaugarriak

Ipuin motorrei buruz zertxobait ikusi eta gero, Vargasen eta Carrascoren (2006) esanetan, metodologia horrek ezaugarri batzuk hartu beharko ditu kontuan. Hurrengo hauek, hain zuzen:

1. Ipuin motorrak talde txikitik egitea komeni da.
2. Irakasleak aurretik ipuina irakurrita ekarri behar du, oztupo gehiegi ez izateko.
3. Irakasleak behar duen materiala prestatuta eduki behar du.
4. Irakaslea praktikan integratuta egotea komeni da, hau da, beste parte-hartzaile bat izango balitz moduan, ikaslearen eta irakaslearen artean lotura positiboa lortzeko.
5. Espazioa prestatuta eta pentsatuta egon behar da.
6. Ez du luzeegi iraun behar.
7. Geldiuneak egitea komeni da, azalpenak emateko.
8. Egitura bat izan behar du ipuinak: hasierako fasea, garapena eta bukaerakoa.





9. Saioan zehar, berebiziko garrantzia dauka ikasleen iritzi guztiak kontuan hartzeak.

10. Ipuinaren bukaeran, hausnartze-ko faseak garrantzia du.

Behin ezaugarriak aipatuta, ezinbestekoa da ipuin motorren metodologiaren helburuak zehaztea. Vargasen eta Carrascoren (2006) esanetan, beharrezkoa da metodologia horren helburuak jakitea:

- Haurra protagonista bilakatzea, kontakizunaren jabea, haren jokabide kognitiboa, afektiboa, soziala eta motorra garatzeko.
- Pertzepziozko hainbat gaitasun garatzea (gorputzaren kontzientzia: oreka, amasketa, erritmoa, erlaxazioa, koordinazioa...), oinarritzko gaitasunak (jauziak, jaurtiketak...) eta baita orokorrak ere (kolpeak...).
- Gaitasun fisikoak garatzea (indarra, abiadura, malgutasuna eta erresistentzia).
- Gaitasun kognitiboak garatzea (oroimena, pentsamendua, arreta, hizkuntza, arazoiketa, arazoen ebazpena...).
- Sortze-gaitasuna lantzea, esaten ari zaiona irudikatzen.
- Lehenengo urteetatik ekintza fisikoaren garrantziaz ohartaraztea, ohitura osasungarriak ezartzeko.
- Hainbat eremu diziplinartekoak izatea; modu berean, Gorputz

Hezkuntzaren edukiak beste ikasgaiekin elkartzea, hezkuntza globala izateko.

Conde Cavedaren (1994) esanetan, ipuin motorren bitartez ez da ikasleen motrizitatea soilik garatzen. Teknika horrek ikasleen garapen integralean bilakaera bermatzen laguntzen du. Ikaslearen ikaste-prozesu esanguratsua bermatzen laguntzen du, alor anitzetan fokua jarritz.

Erreferentzia bibliografikoak

- BETTELHEIM, B. (1995). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Barcelona. Ed. Crítica.
- BIZKARRA, M. T. (2008). "Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan". Euskal Herriko Unibertsitatea.
- CONDE CAVEVDA, J. L. (1994). *Los cuentos motores*. (I eta II. lib.). Barcelona. Paidotribo.
- ESTEVE, O (2010). "Hausnartzen duten irakasleak prestatzen. Zazpi galdera Olga Esteveri". HIK HASI, 20, 21-22.
- FRÖBEL, F. (1929). *La educación del hombre*. Itzulpena: J. Abelardo Núñez, New York, London. Appleton y Compañía.
- LATORRE, A, (2003). *La investigación-acción. Conocer y cambiar la práctica educativa*. Barcelona. Grao, 3. or.
- MUNTANER, J. (2000). "La igualdad de oportunidades en la escuela de la diversidad". Revista de

currículum y formación del profesorado, 1-19.

- PEREZ, M., MARTINEZ, M. A., FERNANDEZ, C. (2010). "El barco intercultural. Cuento psicomotor". Revista digital EF deportes, 144.

<http://www.efdeportes.com/efd149/el-barcointercultural-cuento-psicomotor.htm> (Kontsulta: 2015/05/29).

- PUJOLAS, P (2009). "Aprendizaje cooperativo y educación inclusiva: una forma práctica de aprender juntos alumnos diferentes". Universidad de Vic, 1-59.

- RUIZ OMEÑACA, J. V. (2008). "El cuento motor cooperativo como alternativa para la Educación Física". Actas del VI Congreso Internacional de Actividades Físicas Cooperativas. (CD-R). La Peonza: Valladolid.

- SERRABONA, J. (2006). "De la palabra a la acción. El cuento vivenciado motrizmente". Revista Iberoamericana de Psicomotricidad y Técnicas corporales, 6, 173-182.

- TIERRA, J. (2001). "Educación física y alumnos con necesidades educativas especiales". Revista de educación, 3, 137-147.

- TONUCCI, F. (2013). *Haurren hiria*. Txatxilipurdi.

- VARGAS, R. eta CARRASCO, L.(2006). *Pensamiento Educativo*.

38. lib., 108-124. or.. "El cuento motor y su incidencia en la educación por el movimiento".

GALDEIDAZU

DISTANTZIAK ETA NEURRIAK ZORROZTU DIREN GARAI HAUETAN, ZER GARRANTZIA DAUKA JOLAS LIBREAK?

Hasteko, galdera batetik abiatuko nintzateke: haurrei zer-nolako balio erantsia ematen die jolas libreak?

Lehenengo eta behin, zerbait argitu beharko nuke jolasaren izaeraz. Guk, psikomotrizistok, *jolasa* librea den horri soilik deitzen diogu. Dena dela, jolasa oso jarduera konplexua da, eta, galderei emango diedan erantzuna hobeto ulertu ahal izateko, lehendabizi, jolasaren zenbait ñabardurari buruz hitz egin behar da.

Jolasaren baldintzak eta ezaugarriak

Gure paradigma teorikotik ikusita, lau baldintza bete behar ditu haurraren jarduerari *jolas* deitzeko:

1. Librea izan behar du, nahiz eta arautua izan; bestela, ez da bere jolasa, beste batena baizik. Azken kasu horretan, ez dira betetzen jolasaren funtzio guztiak.
2. Plazerean oinarritu behar du. Mina edo beldurra dagoenean, haurrak ez du jolas egiten.
3. Balizkoa izan behar du; sinbolikoa, egia ez dena. Haurra oso kontziente da horretaz, nahiz eta emozioz beteta egon. Ez da nahasten. Nahastuko babiliz, errealitatearen printzipioa galduko luke, eta, orduan, ez litzateke balizkoa izango. Guk printzesa eta superman asko



ikusten dugu, baina inork ez du koltxonetatik kanpora salto egiten.

4. Komunikazioan gertatzen da. Komunikazio honetaz ari gara, behin Aucouturierrek emandako definizioaren ildotik: elkarren transformazioa eragiten duena. Pixka bat zailagoa da hori azaltzea, umeak bakarrik jolas egiten duenean; baina hala da orduan ere.

Jolasak baditu beste ezaugarri batzuk ere. Jolasa ikertzaile askoren objektua izan da, eta ikerketa fin asko egin dira haren inguruan. Hona hemen zerrendatxo bat, lar zehatza izan nahi ez duena. Konplexutasun hori agerian jartzeko asmoz ekarri da hona:

- **Helbururik gabeko jarduera da:** ez du ezer ekoizten, berez justifikatzen da. *Jolastearren jolastea* da bere balioa; igurikapenik gabe, epairik gabe; hobetu (aldatu, zuzendu) ezin daitekeen zerbait da, umearena da, beraren neurri egokitutakoa; ulertzen du, zentzua dauka harentzat, eta malgua da.
- **Pentsamendua da:** iragana orainean jartzen du, eta etorkizunerako proiektzioak egiten ditu. Jolasik gabe, ez legoke pentsamendurik. Haurrak ekin-tzen bidez pentsatzen du (alda-

JON ARANA Psikomotrizista



tzen doa adinarekin batera).

- **Adierazpena da:** jolasaren bitartez, nor den adierazten du, zer historia duen, nola ikusten eta interpretatzen duen mundua, zer emozionalitate duen.
- **Simulazioa da:** igarotako bizitzaren eta etorkizunekoaren esperientziak arriskurik jaso gabe berriro bizitzeko modu bat da. Dena dela, inkontzientea da.
- **Memoria martxan jartzen da:** “Jolasa benetan gertatutako gauzen metaketatik hurbilago dago irudimenetik baino. Gehiago da memoria martxan jartzea, egoera berri edo irudimenezko egoera bat baino”. (Vigotski).
- **Performatiboa eta generatiboa:** jolasaren erabilerak aldatu egiten du erabiltzailea. Erabiltzen direnean, ingurugiroa aldatzen dute, eta ekintza horrek umea aldatzen du; berreraiki, berregituratu eta berrantolatu egiten du. Jolasak posible diren ekintzak eta posible ez direnak definitzen ditu. “Zentzu batean, ume bat, jolasten ari denean, guztiz libre da bere ekintzak erabakitzeko. Baina, beste zentzu batean, askatasun hori ilusio bat baino ez da, haren ekintzak gauzen esanahiari lotuta baitaude; eta umea behartuta dago horren arabera jokatzera”. (L. Vigotski)
- **Errekurtsiboa da:** jolasak haurraz hitz egin dezake. “Honetan jolasten ari naiz” adierazten denean edo metajolasaren bidez berrikusten denean. Horri esker, umeak bere burua ere azter dezake.

Aipatutako azken ezaugarriak ez dira jolasarenak bakarrik. Literaturak, dantzak, arteak, pentsamendu filosofikoak, zientziak eta abarrek ere ezaugarri horiek dituzte. Baina haur-jolasetan hasten dira gauzatzen.

Jolasaren funtzioak

Gaur egun, inor ez litzateke harrituko (zorionez) entzungo balu jolasa, oso garrantzitsua baino areago, ezinbestekoa dela haurren garapenerako.

Egia da. Haurrek ez dute garapen

orekatu eta aberatsa izatea lortuko jolastuz bakarrik, baina, jolastu barik, ez dute halakorik lortuko. Haurrek ezinbestez jolastu behar dute. Ezin dira “ez-jolastu”. Egoera latzenetan ere, beldurrak eta minak tregoa ematen dutenean, haurrak jolasten hasten dira, beren indar apurrez.

Berrikus ditzagun garapenaren esparru ezagunenak, eta gogoratu ditzagun jolasaren onurak:

- **Garapen biologikoan:** burmuineko errezeptore neuronalak bereizi eta garatzea. Nerbio-sistemaren mielinizazioa. Hormonen sekrezioa. Giharren eta hezuraren indartzea. Ezinbestekoak dira jolasak dakartzan plazerak, sorpresak eta kontrolak.
- **Garapen motorrean:** norberaren gorputzaren errepresentazio mentala garatu (gorputz eskema). Koordinazioa, oreka, indarra, erreflexuak, mugimendu handien eta txikien kontrola.
- **Garapen kognitiboan:** esperientzia berriek, askatasunez entseatuta, eskema kognitibo zaharren birmoldatzea dakarte (Piaget). Beste batzuen laguntzaz, beren eskema kognitiboan bidez egin ahal dutena baino gehiago egin dezakete (Vigotski). Sailkapena, asoziazioa, kausa-efektu erlazioa, atentzioa, memoria, asmatzeko gaitasuna, adierazpideak, ikuspuntu askotarikoak, kontzeptu ugari (denborazkoak, espazialak, linguistikoak), jolastuz lantzen dira goi mailan.
- **Garapen sozialean:** portararen eta lege moralen mugak ikastea; kooperazioa, errespetua eta komunikazioa. Besteen ikuspuntua entseatzeko lanabesa; sedukzioa, inposizioa, negoziazioa, erasoaren balioa eta mugak. Egokitzea; kontrola, pazientzia, itxarotea, txandak, arauak.
- **Garapen afektibo-emozionala:** emozioen identifikazioa eta adierazpena. Gatazken adierazpena. Gorputz, objektu eta harremanak menderatzeak ematen duen konfiantza eta gaitzatearekin lotutako sentipenak.

Eta funtzio hauek guztiak asko iruditzen bazaizkizue, beste bat ere badakargu psikomotrizitateko adituok. Gure lana gehien justifikatzen duen funtzioa da, baina gure gizartean gutxien ezagutzen dena: jolasaren funtzio terapeutikoa.

Jolasaren funtzio terapeutikoa

Haurren jolasen edukiak arrotzak egiten zaizkigu askotan; arraroak, zentzugabekoak. Baina eduki horiek haurrek aukeratzen dituzte, modu inkontzientean, eta zentzu osoa daukate haientzat. Zentzu inkontzientea bada ere.

Sigmund Freudek, *Plazeraren printzipiotik harago* (1920) liburuan, haren bilobak egiten zuen jolas bat deskribatzen du. Jolasa oso ezaguna da haur-psikologiaren literaturan, eta *Fort-da* edo *Txirikaren jolasa* izenez ezagutzen da. Jolas horretan azaldu zuen ikuspegi berritzailea ekarri zuen. Freuden ustez, haurren jolas batzuetan agertzen diren edukiek zerikusia daukate haien bizitzako zenbait gertakizun latz edo mingarriekin, eta haien aurrean segurtasuna lortzeko balio die.

Freuden bilobaren kasuan, zehazki, amaren joan-etorrien aurrean sentitzen zuen ondoeza konpentsatzeko erabiltzen zuen jolas hura, nolabait ere. Freudek dio, txirrika bat desagerrarazten eta agerrarazten jolastuz, sinbolikoki amaren agerpena eta desagertzea kontrolatzen zuela, eta nolabaiteko ordain emozionala ematen ziola horrek.

Interpretazio hori zoroa irudituko zaigu agian hasieran, baina, haurren jarduerari ondo behatuz gero, egiten dituzten jolas askoren interpretaziorik zentzuzkoen bilakatuko da hark esandako hura.

Har dezagun, adibidez, aski ezaguna den ezkutaketaren jolasa. Jolas horretan, irrika eta emozio handiak sentitzen ditu hiruzpalau urteko haurrak. Baina oso zaila da horren zergatia azaltzea, batez ere benetan ezkutatzeko egiten dituen ahalegin traketsak eta jolasaren iraupen txikia ikusita.

Freudek argi azaltzen du: haurrak atxikimendu-figuren desagertzea jarri du jokoan, baina jolasaren

Kanadan egindako ikerketak adierazi du haurrek naturan eginiko jolas-arriskutsuek, beren osasunerako onak izan ez ezik, beren sormena, trebetasun sozialak eta erresilientzia suspertzen dituztela.

kontrola hartuta. Horregatik, ez da haurra kontatzen gelditzen dena, bera gorde egiten da, baina ez da ondo ezkututzen. Amaren desagerpenak kontrolaezinak eta mingarriak dira haur txikiarentzat. Baina, orain, kontrolak ematen duen segurtasunetik, plazerean antzezten ditu, eta beldur inkontzienteak uxatzeko balio dio horrek.

André Lapierrek eta Bernard Aucouturierrek amaren galerari buruzko beldurretan oinarritutako jolas-educiei gorputz-galeretan oinarritutako beldurrak gehitu zizkieten.

Haien esanetan, txiki-txikitan jasotako gorputz-sentsazio latzek eta mingarriek (infekzioek, sumindurek, arnasteko zailtasunek, goseak, hotzak, manipulazio bortitzek, sustoek eta era guztietako minek) aztarna handiak uzten dituzte gure gorputzean. Aztarna horiei *beldur arkaiko* izena eman zieten. Beldur horiek, esan bezala, sentsazioekin eta haiei lotutako ekintzekin daukate zerikusia. Hauek dira, besteak beste: hustu, desegin, jausi, apurru, zuritu, anputatu, ito, zapaldu.

Zorionez, min eta ondoez horien guztien aurrean, goxo kontsolatu dituzte haurrak gurasoek. Horrela, plazerak ere aztarnak uzten ditu, eta jolaserako plazer-iturria izango dira. Azken finean, jolas askok mugako izaera dute; larritasunaren eta plazerearen arteko muga daude. Horregatik, jolasek indar terapeutikoa daukate.

Bi sailkapen orokor egin daitezke jolas mota hauekin:

Segurtasuna areagotzeko jolasak: erlazioaren galera eta gorputzaren

galera sinbolizatzen dituztenak dira. Norberaren jarraipenarekin eta plazerarekin lotutako sentipenak bermatze-ra zuzentzen dira. Zentzu-mugimenduko jolasak dira (bilketak, saltoak, arrasteak, zapalketak, zilipurdiak). Eta bete/hustu, lotu/mugatu, bota/eraiki, zabaldu/itxi, desagertu/agertu motakoak. Haurrak autonomiaz egiteko gaitasuna dauka.

Aurresinbolikoak: aurrekoek bezala, erlazioa eta gorputza dituzte oinarri, baina lagun sinbolikoa eskatzen dute, balizko egoerak antzeztu ahal izateko (ezkutatzeak, jazarpenak, lotzeak, kartzelaratzak, aurkaritzak eta abar). Rolak ager daitezke, baina, normalean, ez da izango jolasteko gidoirik. Guretzat bereziki interesgarriak dira “aurresinboliko” gisa sailkatzen ditugunak.

Bizi izandako distantzia soziala, musukoa eraman beharra, konfinamendua, gaixotzeko beldurra, familiarreko baten heriotza eta beste ondoez guztiak laster bilakatuko dira jolasen eduki. Gu konturatu ala ez.

Jolas librea naturan egiten denean, zer-nolako balio erantsia hartzen du?

Azter dezagun orain naturan egiten den jolasaren balioa. Horretarako, egokia iruditu zait Kanadako Child & Family Research Institute at BC Children’s Hospital erakundearen egindako ikerketa bat hemen plazaratzea. Izen hauxe darama: “Risky outdoor play positively impacts children’s health: UBC study” www.terramater.es webgunetik hartu dut.

“Ez dirudi egokiak direnik edo haurrek entzun behar dituztenik “ez ibili korrika, jausiko zara eta” edo ‘kontuz, ez zikindu’ esaldiak, beren gaitasunak garatu ditzaten edo beren haurtzaroa disfruta dezaten nahi badugu.

Gaur egungo bizimodua edo gaur egungo jolas-parke moderno txepelak eta duela hamarkada batzuetakoak konparatuta, gure haurrak babestuegiak hazten direla ondoriozta dezakegu. Gauza bat da beharrezkoak ez diren arriskuak saihestea, eta beste bat behar dituzten esperientziak kentzea. Mesederik egiten al die horrek? Zientziak ezetz dio.

Kanadan egindako ikerketak

adierazi du haurrek naturan eginiko jolas arriskutsuek, beren osasunerako onak izateaz gainera, beren sormena, trebetasun sozialak eta erresilientzia suspertzen dituztela. *International Journal of Environmental Research and Public Health* aldizkarian jasotako aurkikuntzak, behintzat, horrela dio. Altueretara igotzen, saltatzen, jolas zakarretan aritzen, lurrian iraulka edo begiralerik gabeko esplorazioetan ibiltzen diren umeek osasun fisiko eta sozial handiagoa omen daukate.

“Jolas-eremuetan, zeinetan haurrek zenbait arrisku hartzeko posibilitatea zeukaten, jolas-denbora luzatuta, interakzio soziala handitu zen, eta hobeto bultzatu eta suspertu ziren sormena eta erresilientzia”, dio Mariana Brussonik, ikerketaren buruak. “Efektu onuragarri horiek halako berme bat ematen diote naturan eginiko jolas arriskutsuari, bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeko”.

“Parkeek eta, orokorrean, zuhaitzek, landareek, altuera-aldaketek eta haurrek beren kabuz libreki aukeratutako ekintzetan aritzeko aukerak eskaintzen dituzten inguruneek eragina dute haurren osasunean eta garapen sozialean, onerako. Espazio horiek arriskuari buruz eta norberaren mugei buruz ikasteko aukera ezin hobeak dira”, dio Brussonik. Segurtasunari eta zaintzari garrantzi handiegia emateak umei horrelako ekintzetan aritzea galarazten die.

“Zaintza aktiboa baino haurren jarraipen sotila egitea egokiagoa litzaiteke, ume koxkorrekin batik bat”, dio berriro Brussonik. “Segurtasunerako beharrak eta haurren garapenerako beharrak orekatzen dituzten jolas-eremuak eraikitzea gomendatzen dugu”.

Naturan egiten den jolas librean, zorizko materialak eta espazioak topatzen dira. Haurrek espazioak moldatu behar dituzte, edo jolasak horietara moldatu. Malgutasunerako portaera beste elementu batzuetarik ere badator: sorpresa, material ez-figuratiboak, arriskua, ingurune-aldaketak (zoruaren kalitatea, altuerak, eguraldia). Horrek guztiak jolasa janzten duten proiektzioak egin ahal izatea errazten du.

Eta, gainera, birusaren transmisioa oztopatzen du. Zer gehiago eska daiteke?

ARGITALPENAK



INTZA ETA TOMAS, SORGINAREN SEKRETUA

Elise Dilet, Antton Hariñordoki

IKAS

8 urtetik gorako gazteentzako liburu honetako protagonistak, Intza eta Tomas, sorginei buruzko ikuskizun bat prestatzen hasiko dira, eta konturatzeko misterio handiak eta ttipiak zilatuko dituzte. Abentura honen harira, lehengo eta oraingo sekretuak hobeki ulertuko dituzte.



SAGUTXIN ETA ILARGI-ARRANTZA

MatPaille, Agathe Moreau

TTARTTALO

Saguton eta Sagutxin aita-seekek magia-truko sinestezin bat egingo dute ipuin honetan eta, ustez, potxingo batera erori den ilargi zati bat bueltan bidali... MatPaille idazlearen eta Agathe Moreau marrazkilariaren album ilustratu hau 4 urtetik gorako haurrentzako pentsatua dago.




PUNPALAPLAN II

Urtxintxa

URTXINTXA

0-5 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako jolas eta abesti bilduma honetan hainbat jolas biltzen dira: sehaskakoak, laztanak egitekoak, sendatzekoak, jatekoak, txalo egitekoak, esku-jolasak, biribilean egitekoak... USB formatuan kaleratu dute eta abestien hitzekin osatutako liburuxka ere bai, biak kaxa batean.




ATA PANK ETA ATE PUNKY

Bernardo Atxaga - Mikel Valverde

PAMIELA

Bernardo Atxagak liburu mordoxka idatzi du haur eta gazteentzat eta pertsonaia asko sortu ditu. Liburu berri honetan bi ahateren gorabeherak kontatzen dizkigu. Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira, lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi samarrak. Bi ahate bitxi; bi harribitxi. Haien gaiztakeriak irribarrez jarraitu ahal izango ditu irakurleak.



STEM GAZTEAK INSPIRATZEKO

Askoren artean

ELHUYAR - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gazteak zientzia eta teknologiarekin lotutako profesioetan inspiratzeko liburu-bilduma hau hiru liburuz osatuta dago: *STEM hezkuntza eta STEM profesioak*, *STEM proiektuak egiteko ideiak* eta *STEM profesionalak*, hirurak ere gazteak inspiratzeko helburuz eginak. Doan deskarga daitezke zientzia.eus/steam-en.



EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN UDAL-PARTAIDETZAREN PROPOSAMENA ETA PROTOTIPOA

Euskadiko Eskola Kontseilua

EUSKO JAURLARITZA

Liburuxka honetan EAEko hainbat udalerritan egindako pilotajearen eta EUDELekin elkarlanean antolatutako jardunaldiaren laburpena egiten da. Kontseiluaren helburuetako bat izan da 2017-2020 epealdian herritarren partaidetza-erperientzia diseinatu, gidatu eta prototipo bat egitea.

PROPOSAMENA

Change hezkuntza-proposamena

Beste begirada bat, beste gizarte bat

Alboan gobernu kanpoko erakundeak proposamen pedagogiko batean parte hartzeko gonbita luzatu die Bigarren Hezkuntzako ikasleei zein haien irakasle eta hezitzaileei. Errefuxiatuen babesaren eta migrazioaren inguruan hausnartzeko eta gizarte inklusibo baten alde ekintzak antolatzeko aukera eskaintzen duen proposamena da, eta Change du izena. Alboanek irakasle eta hezitzaileei laguntza, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dizkie, ikasleek Change hezkuntza-proposamenean parte hartu dezaten.



Babesaren eta migrazioaren gainean hausnartzeko, ikasleko eta ekintzara pasatzeko aukera ematen duen programa europarra da Change, eta azken jomuga aldaketa sortzea da. Change programaren xedea ikasleak errefuxiatuen eta migrazioaren gaiari buruz modu kritikoan pentsatzera bultzatzea da, gertakariak eta iritziak bereizi ditzaten, eta aurreiritziak eta estereotipoak identifika ditzaten.

Parte hartzen duten ikasleak aldaketaren eragile aktibo izatea bultzatzen du, eta, horretarako, bidelagun izan

daitezke irakasleak, eta aldaketarako irakats dezakete. Programako protagonista ikasle gazteak dira, eta irakasleek lagundu egingo diete, euren jakintza eta energia nahi duten etorkizuna moldatzeko erabil ditzaten. Ikasleak modu kritikoan pentsatzera eta beren balioak definitzera animatu nahi duen proposamen pedagogikoa da.

Pentsatu, sentitu, elkartu, ekin eta aldatu. Hitz horiek laburtzen dute Changek proposatzen duen ibilbidea. “Badakigu pertsonak elkartzeko aukera dutenean benetako aldaketa

—Change— gerta daitekeela. Horregatik, Changek konexio esanguratsuak sustatu nahi ditu errefuxiatuen eta gazteen artean”, dio Alboaneko Ines Vicentek. “Ikasleek pentsamendu kritikoa hobetu, eta migrazioaren, gizartearen eta horrelako gaien inguruan iritzi propioa garatu dezakete, irakasleek zuzendutako sei etapako programa honen bidez”.

Ekintza-planak eta enbaxadore-lanak dira ardatza

Hiru eragile aktibo biltzen ditu Changek: ikasleak, irakasleak eta errefuxiatu eta migratzaileak. Ikasleei errefuxiatuen eta migratzaileen egoerari buruzko informazioa ematen die irakasleak ikasgelan, eta hainbat jarduera egiten dituzte, gai horien inguruan modu kritikoa pentsa dezaten. Programan zehar, errefuxiatuen lekukotzak eta historiak ezagutzeko aukera dute; harrera-herrialdera nola iritsi ziren, nola bizi diren horietan, etorkizunerako zer itxaropen eta amets dituzten, eta abar.


Programa bukatutakoan, ekintzara pasatzeko aukera izango dute: Changeko ikasle enbaxadore izango dira. “Beste enbaxadore batzuekin batera, ideiak bildu eta ekintza-plan bat prestatu beharko dute jendea sensibilizatzeko eta gizartearen ikusi nahi duten aldaketaren alde egiteko. Ekintza-plana izan daiteke ekitaldi bat, zerbitzu solidarioko proiektu bat,

kanpaina txiki bat...”, dio Vicentek.

Ikasturte amaieran, Changeko ikasle enbaxadoreek egindako lanak ikusteko aukera izango da, eta aldaketarako ekintza onenak sustatu dituzten ikasle enbaxadoreen taldeek 2021ean Bruselara joateko bidaia irabaz dezakete. Han, beren esperientziak partekatuko dituzte Changeko beste parte-hartzaile batzuekin eta Europako Parlamentuko ordezkari politikoeekin. Change programan, Europako beste zortzi herrialdetako ikasleek hartzen dute parte.

Irakasleen zeregina ikasleei laguntzea izango da, gai horiei buruz ongi oinarritutako iritzia izan dezaten. Horretarako, Changek sei urratsetako hezkuntza-programa eskaintzen du eta etapa bakoitzean dauden pausoen artean irakasleek beren talderako proposenak hautatu ditzakete. Hori guztia garatzeko laguntza eskaintzen du Alboanek: irakasleentzako prestakuntza, errefuxiatu eta migratzaileak eskolara eramateko bitartekaritza, programan parte hartzen duten beste eskola batzuekin topatzeko guneak, egindako ekintzak ezagutzera emateko bitartekoak, eta abar.

2020ko urtarrilean jarri zen martxan proiektua, eta, oraingoz, 18 ikastetxe ari dira parte hartzen Euskal Herrian. “Izena emateko eperik ez dago; ikasturtean zehar eman daiteke”, azaldu du Vicentek. “Nahi den hiruhilekoan lant daitekeen proiektua da, baina



Alboan

www.edukalboan.org
<https://www.edukalboan.org/eu/berriak/change-babesa-eta-migrazio-gaietan-nerabeen-eta-gazteen-parte-hartzea-sustatzen-duen>

Change

<https://www.jrschange.org/eu/>

Izena emateko:

educacion@alboan.org
<https://www.jrschange.org/eu/teachers-registration/>

parte hartu nahi dutela argi duten ikastetxeei izena orain emateko eskatzen diegu, gurekin egin nahi dituzten jarduerak antolatzeko eta Europan zehar zenbat eskolak parte hartuko duten jakiteko”. Horrez gain, Vicentek erantsi du proiektua oso malgua dela. “Ez dago jarduera guztiak egin beharrik; eskola bakoitzak erabaki dezake zein egin, interesen eta norberaren irizpideen arabera”.



ATZEKO ATETIK

25
hh
hik hasi URTE



EUSKAL HERRIGINTZAN HEZKUNTZA DA BIDEA

ANJELES IZTUETA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBURU OHIA

Hasteko, Joxe Mari Auzmendi-ri eginiko guztia eskertu nahi diot. Joxe Mari landa-herri batean, Malloen azpialdeko Azkaraten, munduratu zen. Mutikotan, Patrizio Etxeberriaren fabrika handiaren inguruan garatutako Legazpi industrialera migratu zuen bere familia osoak. Nekazari izatetik, soldatapeko langile familia izatera pasa ziren. Euskal Herrian beste familia asko eta asko bezala. Barru-barrutik bizi izan zituen landa-munduaren eta herri industrial baten artean zeuden alde eta kontraste guztiak. Eguneroko bizitza eta giroa erabat desberdina baita batean eta bestean.

Garai hartan, langile eta nekazari familietan ikasketa unibertsitarioak egiten zituzten mutilak seminario edota fraideen etxetik pasatakoak izaten ziren normalki, eta, gehienetan, Humanitate ikasketak egiten zituzten. Nolatan, bada, Joxe Mari kimikari? Badakigu urte haietan langileen seme-alabei beka bidez ikasteko aukera ematen zieten Universidades Laborales zeritzen barnetegi-ikastetxeak zeudela. Joxe Marik Chesten (Murtzian) eta, gero, Huescako Unibertsitate Laboralean ikasi zuen. Beraz,

lehen saltoa Azkaratetik Legazpira, eta, gero, Murtzia eta Huescara, guztiak mutiko eta gazte garaian... eta horrek bere marka ezartzen du modu positiboan, eta mundu-ikuskerara asko zabaldu dezake. Joxe Mariren kasuan, horrela izan zen.

Nik ere antzeko ibilbidea egin nuen... Zaragozako Unibertsitate Laboralean ikasi nuen, eta, nekazari eta gero langile familia bateko ibilbide berdintsua egin ondoren, Matematika ikasketak egin nituen Valladoliden. Bizipen horiek asko lotzen ninduten Joxe Marirekin.

Kimikaria izanik, Pedagogia ikasketak egin zituen gerora Joxe Marik, eta bokazioa eta lanbidea, bere ikuskera zabal horrekin, **Hik Hasiren** inguruan garatu zuen.

5. urtean ezagutu nuen nik **Hik Hasi**, garai horretan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu nintzela. Behin, bulegora joan nintzen bisitan, eta harrituta gelditu nintzen ikusirik zein txikia zen tokiz eta zer ilusio eta dinamika aberatsa zegoen han. Harrituta eta eskertuta gelditu nintzen benetan! Handik aurrera, elkarlana aberatsa izan zen: prestakuntzaren alorrean, euskal

curriculumaren lanketan, Finlandiako eta Eskandinaviako hezkuntza-sistemak ezagutzeko lanetan...

Hasiera-hasieratik, gainera, sistema gisa bizi zuen hezkuntza-komunitatea **Hik Hasik**, eta berdin lan egiten zuen administrazioa jabego zuten ikastetxe publikoekin zein kooperatiba ziren ikastolekin zein jabego erlijiosoan zuten ikastetxeekin. Batez ere ume gaztetxoan alde egiten zuen lan, irakasleei laguntzen eta gurasoan eta euskal komunitatearen alde. **Hik Hasin**, euskarak eta inklusio-ikuspegiak beti izan du zentralitatea, oso planteamendu berritzaileak eta parte-hartzaileak bultzatuz. Guztia oso diru gutxirekin eta ilusio eta profesionaltasun izugarriarekin.

Zer eskatuko nioke **Hik Hasiri**? Zubi-lanak egiten jarraitzeko euskal hezkuntza-sistema osoaren eragilean artean, jarraitzeko berrikuntza lantzen euskal hezkuntza-sisteman, euskara ardatz hartuta beti eta euskal lurraldeen ikuspegia jomuga izanik, eta inklusioaren eta aukera-berdintasunaren printzipioekin lanean jarraitzeko. Ilusioz eta profesionaltasunez! Euskal herrigintzan Hezkuntza da bidea.



Liburu-dendak
Kioskoak
Papertegiak
Kale-saltzaileak
Jostailu dendak
Denda ekologikoak
Nekazarien kooperatibak
Pentsu dendak
Loradendak
Belar dendak
...

Erosi herrian

Ez gaudela zure denda kuttunean?

Deitu diezagula dendariak eta ziztu bizian bidaliko ditugu:
679 81 73 54 / okorta@argia.eus

Zuzenean ARGIA n erosteko

www.argia.eus/azoka
943 37 15 45

Hik Hasiren liburu berria



Natura, askotariko materialak, sormena, ikerketa, jolasa... eskuak, hankak eta burua mugiarazten dituzten ideiak eta proposamenak

Salgai www.hikhasi.eus-en
Esperimentazioan sakonduz biziberritu